

ERRIA

1

eraldaketarako aldizkari politikoa
2018ko urtarrila / www.eria.eus

ERRIA 1. alea

Azaleko ilustrazioa:
Oier Zuñiga

Argitaratzailea:
Iratzar Fundazioa

Editoreak:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu

Erredakzioa:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu
Oier Narbaiza
Idoia Zengotitabengoa

Argazkiak:
Argazki Press

Diseinua eta maketazioa:
Grafik Sarea

Ilustrazioak:
Oier Zuñiga

Egoitza:
Zuatzu enpresa parkea.
Easo Eraikina 4, behea.
20018 Donostia
tlfnoa: 943 265982

www.eria.eus
eria@eria.eus

twitter: @eria_eus
facebook: www.facebook.com/eria.aldizkaria

Erria, Sortu eta
Iratzar Fundazioaren
aldizkaria da.

Lege gordailua:
SS-0033-2018

Jabego lizentzia:
CCBY-SA

“La política no es estar,
sino ser”

Izaskun Larreategi. *Ezker abertzaleko militantea.*



05

EDITORIALA

Erria, aldizkari berria, martxan

14

SAKONEAN

ARKAITZ
RODRIGUEZ

“Autonomismotik subirautzarako
trantsizioa gauzatu behar dugu,
laugarrenean bai”

42

ERREPORTAJEA Andoni Olariaga Azkarate

**Menpekotasun
energetikoaren afera**

10

TXIO-TXIOKA

30

ERREPORTAJEA

Euskal Elkargoa:
ibilbide baten
irakaspenak
eta perspektibak

Egoitz Urrutikoetxea

50

ELKARRIZKETA

MAURICIO OLITE
Nafarroa por el tren social

DOSSIERRA: PROZESU SOBERANISTAK

56

ELKARRIZKETA

JAUME LÓPEZ

**Derecho a decidir,
soberanía y
proceso
constituyente**

Andoni Olariaga Azkarate

70

HAUSNARKETA

**Prozesu
Soberanistak
Europar
Batasunean:
demokrazia eta
gehiengo sozialak**

Elena Beloki Resa

78

ERREPORTAJEA

**Eusko
Ikaskuntzaren
Liburu Zuria eta
Berdea:
Euskal Lurzorua
ontzen**

Zuriñe Gojenola Goitia

82

ELKARRIZKETA

PAT RICE

**An cara
hÉireann***

[El amigo irlandés]
de lo/as vascos/as

92


1917
2017

**Atzoko borroketatik
gure garaiko matxinada
demokratikoetara**

Floren Aoiz. Iratzar Fundazioko kidea.

108

GOMENDIOAK



EDITORIALA

Erria, aldizkari berria, martxan

Ez, ez da akatsa. Ondo irakurri duzu: erria. Eta akatsa balitz, gaitz erdi: akatsetatik beti ikasten baita zerbait; eguneroko bizitzan eta baita politikagintzan ere akatsak egitera behartuta gaude, ikasi eta bidea egingo badugu. Norbait honezkero ohartuko zen kostaldeari lotuta dagoen hitza dela aldizkariaren izena. Euskal Herriko kostalde luze-zabalean, erria txikota oihua entzuten da; horrekin, moilatik sokak askatu, eta itsasoan zeharreko bidaia hasten da. Ez dabil oker, beraz, horrela ulertu duena. Hori hitzaren adieretako bat baino ez da, ordea. Erriak garai historiko honetan bilatzen dugun hori adierazten du: gure itsasontzia portutik erriatzea, kalean, kartzelan zein deserrian dagoen herriaren potentzial eta indar guztia askatzeko.

Badakigu, bai, izenak izana ematen duela. Alta, begirada nondik nora eramaten den, hortxe dago kokka; zentroa eta periferia non kokatzen ditugun. Inertziekin amaitu nahi dugu, gugandik hasita: lurralde, gorputz eta aldarrikapen jakin batzuek periferia izateari utzi, eta objektu izatetik subjektu izatera pasatzea. Sustrai Colinaren hitzak moldatuz, Euskal herria gelditu ez dadin euskal erdian, periferia erdigunera ekarri dezagun.

Mugimendu eraldatzaileek ez dute lan makala egungo munduan, errealismo kapitalistak alternatibarik ez dagoelako ustea barreiatu eta sakon sustraitu baitu, non eta gure buru-larruan.

Horrez gain, gaurkotasunaren esklabu garen honetan, egunerokoaren diktaduratik ihes egin eta begirada pausatu ahal izateko lanabesak eskaini nahi ditu aldizkari honek; hori du xedea. Halaber, alternatiba berrietarako zantzuak sumatzen ditugu, xumeak eta aldi berean ausartak. Eta horretara gatoz lehen ale honetan: alternatiba berri horien printzak atzeman eta orri hauetara ekartzera, maila globaletik lokalera, eta alderantziz.

Aldizkariaren edukiak askotarikoa izan nahi duenez, elkarrizketak, dosierak, sinadurak eta gomendioak biltzen ditu. Sarreran, txiolandiarra jo dugu, azken hilabeteetako kronika bat marraztu asmoz. Jarraian, hainbat elkarrizketa: baga, egungo testuinguru soziopolitikoaren ikuspegi orokorraz mintzo zaigu Arkaitz Rodriguez Sortuko idazkari nagusia; biga, Mauricio Olite tafallarra Nafarroako tren sozialaren beharraz; higa, Jaume Lopez erabakitze eskubideaz eta prozesu katalan eratzailleaz; laga, Pat Rice bere bizipen politikoez. Artikuluak eta sinadurak ere badira: Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak lortutako Euskal Elkargoari buruz; subiranotasun energetikoaren aferaz, Arabako ekimenei garrantzia emanez; Eusko Ikaskuntzak bultzaturiko liburu berdeaz eta liburu zuriaz, azken hori Zuriñe Gojenolak idatzia. Halaber, Elena Beloki Europako prozesu subiranisten egungo egoeraz mintzo zaigu, Floren Aoizek Errusiako iraultzaren urteurrenez gako batzuk ematen ditu, eta Beñat Irasuegik gogora dakar iraultza hartan fikzioak izandako garrantzia. Euskal Memoriak plazaraturiko Euskal Herriko tortura kasuekin, infografia bat ere ekarri nahi izan dugu orriotara. Azkenik, hainbat liburu eta dokumentalen gomendioak egin dizkigute. Hortaz, aldizkari honetan bada non aukeratu.

Bukatzeko, hainbat liburu eta dokumentalen gomendioak aurkituko dituzu. Aldizkari honetan badago abagunea, hortaz, elkarrizketa eta artikulu mamitsuak zein artikulu eta sinadura sotilagoak irakurtzeko.

Irakurri, hausnartu, eztabaidatu; proposamen eta kritika eraikitzaileak jasotzeko prest gaude, nola ez.

Gustuko izango duzulakoan, on egin!

Sale a la calle la nueva revista Erria

No, no es un error. Has leído bien: erria. Y si se tratase de un error, sería un mal menor, ya que de los errores siempre se aprende algo. Tanto en la vida diaria como en la actividad política, los errores son necesarios para aprender y hacer camino. Probablemente, alguien ya se habrá percatado de que el nombre de la revista es una palabra vinculada a la costa. En toda la zona costera de Euskal Herria es habitual escuchar el grito "erria txikota", tras el cual las embarcaciones sueltan amarras y se hacen a la mar. Por lo tanto, quien así lo haya entendido ha acertado. Sin embargo, esa no es más que una de las diferentes acepciones del término. La palabra erria expresa lo que buscamos en esta etapa histórica: que nuestro barco suelte amarras, para liberar todo el potencial y toda la fuerza del pueblo que está en la calle, en la cárcel o en el exilio.

Sabemos que el nombre denota el ser. Sin embargo, lo verdaderamente importante es desde dónde miramos, dónde situamos el centro y la periferia. Queremos acabar con las inercias, empezando por nosotras y nosotros mismos, que determinados territorios, cuerpos y reivindicaciones dejen de ser periferia y pasen de ser objeto a convertirse en sujeto. Adaptando las palabras de Sustrai Colina, traigamos la periferia al centro, para que Euskal Herria no se quede en euskal erdia.

En el mundo actual, los movimientos transformadores se enfrentan a una tarea de enormes proporciones, ya que el realismo capitalista ha difundido y enraizado profundamente la idea de que no hay alternativa, incluso en nuestras propias mentes. Además, ahora que somos esclavas y esclavos de la actualidad, esta revista quiere ofrecer herramientas para escapar de la dictadura del día a día y poder reposar la mirada. Ese es su objetivo. Así mismo, percibimos señales que apuntan a nuevas alternativas, señales modestas y al mismo tiempo audaces. A eso precisamente queremos dedicar este primer número de la revista. Queremos detectar los brotes de esas nuevas alternativas y traerlos a estas páginas, desde lo global a lo local y a la inversa.

Los contenidos de la revista serán variados y en sus páginas encontraréis entrevistas, dossieres, firmas y recomendaciones. La introducción [txiolandia] es una crónica de los últimos meses, y da paso a varias entrevistas: en la primera, el secretario general de Sortu, Arkaitz Rodríguez, nos ofrece una visión general sobre el contexto sociopolítico actual; en la segunda, el tafallés Mauricio Olite nos habla sobre la necesidad del tren social en Nafarroa; en la tercera, Jaume López profundiza en el derecho a decidir y el proceso constituyente de Catalunya; y en la cuarta, Pat Rice nos desgana sus vivencias políticas. También encontraréis artículos y firmas: sobre la Mancomunidad Única recientemente conseguida por Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa; sobre la cuestión de la soberanía energética, destacando las iniciativas que se están desarrollando en Araba; sobre el libro verde y el libro blanco impulsados por Eusko Ikaskuntza, este último [artículo] escrito por Zuriñe Gojenola. Así mismo, Elena Beloki nos habla sobre la situación actual de los procesos soberanistas en Europa, Floren Aioz nos ofrece algunas claves sobre el aniversario de la Revolución Rusa y Beñat Irasuegi nos recuerda la importancia que tuvo la ficción en aquella revolución. También hemos querido traer a estas páginas una infografía sobre los casos de tortura habidos en Euskal Herria, elaborada en base a los datos que ha dado a conocer Euskal Memoria. Por último, encontraréis una relación de libros y documentales que nos han sido recomendados. Como podéis comprobar, en esta revista hay donde elegir.

Leedla, reflexionar y debatir. Por nuestra parte, recogeremos gustosamente propuestas y críticas constructivas. Esperando que la revista os guste, on egin!

Erria, la nouvelle revue est parue

Non, il n'y a aucune faute. Tu as bien lu : Erria. Et si c'était une faute, ce serait un moindre mal : on apprend toujours quelque chose des erreurs ; pour apprendre et avancer, aussi bien dans la vie de tous les jours qu'en politique, nous sommes amenés à commettre des erreurs. Quelqu'un a sûrement remarqué que le nom la revue a un rapport avec la côte. Dans toute la zone côtière d'Euskal Herria il est coutumier d'entendre le cri « erria txikota ! » [larguez les amarres] ; ensuite, à quai, les amarres sont larguées et commence le voyage à travers la mer. Celui ou celle qui l'aurait compris ainsi serait don dans le vrai. Mais ce n'est qu'une acception du mot. Le mot erria exprime ce que nous recherchons dans cette étape historique : que notre bateau largue les amarres, afin de libérer tout le potentiel et toute la force du peuple qui est dans la rue, en prison ou en exil.

Nous savons qu'un nom évoque qui nous sommes. Cependant, cela dépend de l'angle duquel nous regardons, du lieu où nous situons le centre et la périphérie. Nous voulons, en commençant par nous-mêmes, en finir avec les inerties : que certains territoires, corps et revendications deviennent le centre de notre attention, qu'ils passent du statut d'objet à devenir un sujet. Nous adaptons les mots de Sustrai Colina, mettons la périphérie au centre, afin qu'Euskal Herria ne soit pas euskal erdia [à demi Euskal Herria].

Dans le monde d'aujourd'hui, la mission des mouvements transformateurs n'est pas une tâche facile, car le réalisme capitaliste a répandu et ancré, y compris dans nos têtes, l'idée qu'il n'existe pas d'alternative. De plus, à cette époque où nous sommes esclaves de l'actualité, cette revue souhaite offrir des outils pour échapper à la dictature de la routine quotidienne et pouvoir poser le regard. Tel est son objectif. Ainsi, nous percevons des signes qui amènent des alternatives nouvelles, modestes mais audacieuses. Et c'est cela que nous voulons transparaître dans ce premier numéro de cette revue. Nous souhaitons refléter dans ces pages une petite partie de ces alternatives nouvelles, du global au local et vice versa.

Comme nous aspirons à ce que les contenus de cette revue soient variés, on pourra y trouver des entrevues, des dossiers, des signatures et des recommandations. L'introduction -Txiolandia- fait une chronique sur les derniers mois écoulés. Ensuite tu trouveras plusieurs entrevues: бага, le Secrétaire général de Sortu, Arkaitz Rodríguez, nous offre une vision général du contexte sociopolitique actuel; biga, le tafallés Mauricio Olite nous évoque la nécessité du train social en Nafarroa; higa, Jaume Lopez nous parle du droit de décider et du processus catalan; laga, Pat Rice présente son vécu politique. Il y a également des articles et des signatures: sur la Communauté d'Agglomération obtenue en Lapurdi, Baxe Nafarroa et Xiberoa; sur la question de la souveraineté énergétique, qui traite particulièrement des initiatives mises en place en Araba; sur le livre vert et le livre blanc promus par Eusko Ikaskuntza, ce dernier étant écrit par Zuriñe Gojenola. De même, Elena Beloki nous parle de la situation actuelle des processus de souveraineté en Europe, Floren Aioz nous présente quelques éléments-clés de l'anniversaire de la Révolution Russe, et Beñat Irasuegi nous rappelle l'importance qu'eut la fiction dans cette même révolution. En nous basant sur les cas de tortures qu'Euskal Memoria a publié, nous avons également souhaité mettre une infographie à ta disposition. Enfin, tu trouveras les titres de plusieurs livres et documentaires qui nous ont été recommandés. Par conséquent, dans cette revue, tu auras largement le choix

Lis, réfléchis, débats ; nous sommes évidemment prêts à recevoir des propositions et des critiques constructives. En espérant que cela te plaise, bon appétit !

ERRIA 1


30

14

D1
56



D2
70



50



D3
78



92

82

TXIO-TXIOKA 2017

TXIO-TXIOKA

Atal honetan azken hilabeteetan gertatutakoen nolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean. Umorea, satira, salaketa, aldarrikapenak... Esanguratsuak izan dira, besteak beste, burujabetzaren ikuspuntutik, Katalunian eta Korsikan emandako pausuak eta Espainiar erreinuan ematen ari den desdemokratizazio prozesua. Horrez gain, borroka feministaren lorpenak, torturaren errealitatearen argazkia, joan zaizkigun burkideak... eta askoz gehiago...

Gabriel Rufián @gabrielrufian

Eso es to, eso es to, eso es todo España.



21 Sep 23:32

19K RETWEETS 20K LIKES

kilian jorret @kilianj

When peaceful demands and political problems are responded with repression and intimidation, we can't longer say is a democracy.



20 Sep 19:54 from Pulgarcik, Spain

Nerea Kortajarena @Nereakortajarena

Handiak zarete, aupa Jaizkibel! #Aldarrikapenak #jaizkibel20 @BetsurrekoMorea



9 Sep 08:40

40 RETWEETS 52 LIKES

mikel otero @otero_mikel

Saludos de un andaluz y un vasco defendiendo la libertad en Cataluña a pie de urna.

La solidaridad es la ternura de los pueblos

ECh esp @EChorroEspañol

Erradikal da kontzeptu bat non sartzen diren El Correori gustatzen ez zaizkion gauza guztiak

«Preocupación» en el Gobierno vasco por la campaña radical contra el turismo

4 Aug 23:31

14 RETWEETS 20 LIKES

gerardo teó @gerardoteo

- Niño, ¿tú me has cogido 50€?
- Por los presos de Venezuela no me preguntas, ¿verdad, mamá?
- Pero...
- Ya veo qué tipo de demócrata eres...



12 Jul 13:54

12K RETWEETS 12K LIKES

Alberto Pradilla @albertopradilla

Los gruñones ya tenéis 356 días para ir preparando los artículos antisantifermines. El resto... #yafaltamos

16 Jul 06:44

7 RETWEETS 16 LIKES

Enakoltz Esnaola @EnakoltzEsnaola

ETB2k nazio eraikuntzan segitzen du "Tu al norte y yo al sur"-ekin.

24 Jul 23:44

43 RETWEETS 36 LIKES

Miren Larrion @miren_larrion

La larga pelea de todo Araba para cerrar esta central obsoleta ha dado sus frutos Zorionak a todos y todas!!!

Anacleto Panceto @AnacletoPanceto

Si mandando a la Guardia Civil a Catalunya y despidiéndola al grito de "A POR ELLOS, OOOE" los catalanes no aman a España, yo ya no sé...

20 Sep 23:02

6.276 RETWEETS 7.413 LIKES

Público @publico_es

ÚLTIMA HORA | El Gobierno anuncia que no reabrirá la central de Garoña

1 Aug 12:21

46 RETWEETS 66 LIKES

Samara Vebe @samaraVebe

"Ez naiz matxista, baina..."

BELDURREZKO ixtorio bat idatzi, 4 hitz bakarrik erabiliz:

13 Nov 17:39

1 RETWEET 1 LIKE

Arnaldo Otegi @ArnaldoOtegi

We ♥ CAT



12:53 - 2017 ira. 7

2.243 RETWEETS 5.000 LIKES

ECh esp @EChorroEspañol

La Cataluña silenciada... por el Gobierno español que no deja votar en un referéndum

La Cataluña silenciada alza la voz en la calle para rechazar la independencia

9 Oct 14:54

10 RETWEETS 13 LIKES

Eriantz @eriantz

Euskaraz Franko da Asko. And i think that's beautiful

16:24 - 2017 abe. 29

42 erabiltzailek bertan dute 52 erabiltzailek gurea zela

EH Bildu Zulia @ehbilduz

Zulia Kataluniarekin, erabakitze eskubidearekin eta askatasunarekin bat!!

Zulako Udala @ZulakoUdala

Zulako Udalak Kataluniko Errepublika aitortzen du eta han sortu den egoera salatzeko du. Onartutako mozioaren testu osoari jarraian irakur dezakezue: zulia.eu/Zula_xerbitzur... pic.twitter.com/m0K7yQAYE

13 Nov 10:55

2 RETWEETS 0 LIKES

Eki Erremundegi @EkiErremundegi

Podemos, France Insoumise... Ils venaient changer le monde, ils ne font que renforcer le nationalisme jacobin de gauche. #tristesse

Juan Carlos Monedero @MonederoJC

Sin entrar en cosas de política, que yo no entiendo, esta bandera gana cuando la pones un poquito de morado. pic.twitter.com/3WQzU6Z7pv

11 Nov 12:02

10 RETWEETS 0 LIKES

Albano-Dante Fachin @AlbanoDante78

"Podemos seguir defendiendo el referéndum pactado hasta que se congele el infierno, pero la realidad material es que el bloque del 78 nos muele a palos y Pedro Sánchez, que hablaba de plurinacionalidad, apoya el 155" ctxt.es/es/2017/11/08/Po...



"No me he hecho independentista, no voy a fichar por ERC" Periodismo libre y de servicio público. Contexto y acción. Suscríbete y d...

11 Nov 12:27

5.992 RETWEETS 9.555 LIKES

Unai @unai

Y un bocata de calamares

Hugo Martínez Aberca @Hugomaberca

- Echar al gobierno de Rajoy.
- Reconstruir una democracia decente.
- Intentar un acuerdo territorial y social fraterno y democrático.

1 Oct 10:06

54 RETWEETS 85 LIKES

Protestona @protestona

Pedro Sánchez dice que está con los agredidos pero que apoya a los agresores. Como cuando dice que es de izquierdas pero apoya a la derecha

1 Oct 20:53

18K RETWEETS 20K LIKES

Aitsas gurasok @Aitsasgurasok

Pedir 375 años a nuestros hijos es una aberración judicial de proporciones épicas. La injusticia es enorme. #AitsasukoakAsko #Aitsasua

5 Jul 17:34

89 RETWEETS 58 LIKES

Iñigo Urkullu @Iurkullu

I ♥ Cat



03:20 - 2017 ira. 7

497 Retweets 992 Likes

345 497 992

Entzun Aitsasu @EntzunAitsasu

Un aplauso atronador, para mandar fuerza a los imputados, cargarnos las pilas para seguir luchando y llenar de esperanza a familias



5 Jul 20:18

634 RETWEETS 547 LIKES

mario zubiaza @marioz

Guarden esta foto... la policía (GC) impidiendo votar a la gente. Desde los tiempos del sufragismo el mundo no había visto tal cosa.



1 Oct 09:41

99 RETWEETS 53 LIKES

naiz: @naiz_info

Hoteles de Calella echan a policías y guardias civiles después de que estos agrediesen a personas que protestaban [naiz.eus/eu/actualidad/...](http://naiz.eus/eu/actualidad/)

Hoteles de Calella echan a policías y guardias civiles que agredieron ...

Tres hoteles de Calella, en Barcelona, han expulsado a los policías y guardias civiles alojados después de que estos, vestidos de paisano, fuer...

2 Oct 19:00

163 RETWEETS 127 LIKES

Orindola @orindolapeque

Tal vez algunas deberían darle una vuelta a su concepto de "burguesía"

La Vanguardia @LAVanguardia

ÚLTIMA HORA Gas Natural convoca un consejo esta tarde para estudiar cambio de sede fuera de Catalunya bit.ly/2z2QWly por @fflorio

6 Oct 14:31

22 RETWEETS 22 LIKES

Peteta Potemkin @Petetakin

'Yo corrí delante de los tuits de Rosa Díez'.

7 Oct 11:39

699 RETWEETS 1.667 LIKES

Osaba Jordi [P] @aragorin

La izquierda española apoya el derecho de los negros a ser personas, pero no esta marcha ilegal del Doctor King sin garantía legal alguna.

11 Jul 16:37

163 RETWEETS 191 LIKES

Julian Assange @julianassange

VIDEO (English subtitles): Spain ruling political party, PP, is going all in with its Francoist revival

Asamblea Nacional @asemblioa

El diàleg de l'Estat espanyol consisteix a amenaçar d'afusellar @KRLS, com Companys ☹️ On ets Europa? pic.twitter.com/t37g6Qvdi

9 Oct 15:52

1.266 RETWEETS 801 LIKES

Alfred de Zayas @AlfreddeZayas

THE PROGRESSIVE DEVELOPMENT OF INTERNATIONAL LAW IS CLEAR: SELF-DETERMINATION PREVAILS OVER TERRITORIAL INTEGRITY

3 Oct 08:45

1.790 RETWEETS 1.546 LIKES

Alfred de Zayas @AlfreddeZayas

It bears repeating, territorial integrity can be invoked against States -- not against the people #Catalonia #CatalonianReferendum

5 Oct 08:46

250 RETWEETS 229 LIKES

Floren Aoz @florema

Bien pertrechados en Bolivia gracias a la editorial @txalapartatik #CheGuevara50 #Che50 #goraherria @sortuEH @ratzarFundaz #Gebaragogoan



10 Oct 15:47

mario zubiega @zubiega

La presión sobre Cataluña, sea civil, judicial, económica o policial, responde a una lógica de guerra. España solo puede ganar o perder.

8 Oct 20:58

4 RETWEETS 10 LIKES

Juan Kruz Lakasta @lakasta

Suena Patxi Lopez para president de la Generalitat.

Diari ARA @diariARA

Pablo Casado partidari d'ill legalitzar el PDeCAT, ERC i la CUP ara.com/?_05334649%v18...

9 Oct 21:05

66 RETWEETS 63 LIKES

Oskar Matute @oskarmatute

Su discurso de hoy ratifica que el régimen del 78 está ligado solo por la unidad de España. Y está se está quebrando por Catalunya! Aurrera!

EL PAÍS @el_pais

ÚLTIMA HORA bit.ly/2yH5mpn El Rey llama al Estado a restaurar el orden constitucional en Cataluña

9 Oct 21:34

104 RETWEETS 105 LIKES

Jonathan Martinez @jonahmartinez

Lo de Rosa Díez con Cataluña tiene una explicación.

Carmen de Mairena obtiene más votos que Rosa Díez

UPyD y Alternativa de Govern se han quedado fuera del parlament catalán

2017121016011



6 Oct 20:26

1.042 RETWEETS 1.301 LIKES

Jonathan Martinez @jonahmartinez

Los votos por el sí no fueron el 30 sino el 38% del censo. Con el 27% del censo metisteis a Cataluña en la OTAN.

Miquel Iceta Lorens @miquelceta

¿A la DUI con el 30%?, por @robertomeu elperiodico.com/es/opinion/201... via @Eperiodico

7 Oct 15:43

1.605 RETWEETS 1.399 LIKES

Arturo Puente @apuente

Barcelona, 1938. El lehendakari Agirre a punto de recibir de Companys la clave del wifi de la Generalitat para dirigir Euskadi via internet.



7:36 - 2017 ago. 20

216 comentarios han respondido 204 estadísticas gustatu zake



Ettxerat Elkarte @EttxeratElkartea

LA DISPERSION A CAUSÉ UN NOUVEL ACCIDENT ! Des parentes de la prisonnière politique basque Marta Igarritz ont eu un grave accident hier au retour de la prison de Castello | ettxerat.eus/index.php/fr/n... #StopDispersion #DroitsHumains | pic.twitter.com/6lWHyN5Lz9

Amics i Amigues d'EH

3 Likes 15 Retweets

28 Dec 2017 at 18:24 via Twitter Web Client



Ayuntamiento Tafalla @AytoTafalla

Horra, gure Olentzero! tafalla.es/eu/horra-gure-... pic.twitter.com/ZyIQRDpbrs

6 Likes 3 Retweets

26 Dec 2017 at 17:13 via Twitter Web Client

Juán Arzuaga @juanarzuaga

Atzo besarkada beroa. Gaur hutsune latza...

"Zaindu maite duzun hori" #allFREEdom



17:36 - 2017 ago. 4

95 erantzunak berretsi ditu 67 erantzunak gustatu zake

Ane Irazabal @AneIrazabal

Israeigo soldaduek Betleemgo Aida #arefluxitu palestinarren kanpalekura sartu dira eta hiru haur atxilotzen saiatu. Familien esku hartzeak atxiloteta ekidin du. @btselem



13:47 - 2017 ago. 16

250 erantzunak berretsi ditu 130 erantzunak gustatu zake

amparo lasherar @amparolasherar

Queda en libertad Txema Matanzas, penúltimo preso del sumario 18/98 - [naiz.eus/es/actualidad/...](http://naiz.eus/es/actualidad/) @naiz_info

Queda en libertad Txema Matanzas, penúltimo preso del su... El preso político Txema Matanzas ha abandonado la prisión de Puerto 18, tras más de 10 años preso. El preso sarturikena pero...

13:58 - 2017 ago. 29

1 erantzunak berretsi ditu 2 erantzunak gustatu zake

Pilar Keltzada @pikeltzada

Dr Kasinskaitte-Buddeberg: "Ez gara herri baten bizi, hizkuntza baten baizik" #BTN17



11:17 - 2017 ago. 17

63 erantzunak berretsi ditu 86 erantzunak gustatu zake

Sortu #Goraherria @SortuEH

✦ Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.

Belen Gonzalez Peñalvari omenaldia. Azaroak 26 12:30 Lazkaoko Plaza



AGUR ETA OHORE BELEN

14:23 - 2017 ago. 16

14 erantzunak berretsi ditu 8 erantzunak gustatu zake

Ane Irazabal @AneIrazabal

Israeigo soldaduek Betleemgo Aida #arefluxitu palestinarren kanpalekura sartu dira eta hiru haur atxilotzen saiatu. Familien esku hartzeak atxiloteta ekidin du. @btselem



13:47 - 2017 ago. 16

250 erantzunak berretsi ditu 130 erantzunak gustatu zake

Jule Goikoetxea @JuleGo

El día q los unionistas españoles de izquierda dejen de analizar el proceso d secesion con un unico ojo (izq-dcha) sera un pequeño paso para la humanidad y un gran paso para el pensamiento político contemporaneo #EleccionesCataluna

12:36 - 2017 ago. 22

87 erantzunak berretsi ditu 164 erantzunak gustatu zake

Berria.eus @berria

Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegilari' ren orimenezko horma irudia inauguratuko dute Donostiako Antigua auzoan, igande honetan. Mikel Herrero artistak egin du, Txillardegilari Udal Liburutegia herri plataformaren eskariz. berria.eus/albisteak/1481...



15:33 - 2018 urt. 11

erantzunak berretsi ditu erantzunak gustatu zake

Jean-Guy Talamon @jeanguytalamon

#MeetingBacoli #PACContra

Alora, toma un sforzo, andate tutti à cunvise in città, in paese, in caruggiu, perchè avemu un paese da fà i à populu fattu bisogna à marçhà i pic.twitter.com/q27f8442



76 Likes 30 Retweets

katakarak - Iburuak @katakarak

«zerbait hautsi digute bihotzean gora zerbait loratu du gure herrian» Joxan Artze

#Begirunea #JoxanArtze



11:36 - 2018 urt. 12

2 erantzunak berretsi ditu 3 erantzunak gustatu zake

SAKONEAN ARKAITZ RODRIGUEZ

**“Autonomismotik
subirautzarako
trantsizioa gauzatu
behar dugu,
laugarrenean bai”**





2017ko urtarrilean abiatu zen Sortu berria eta irailean hartu zuen ardura nagusiaren lekukoa Arkaitz Rodriguezek, Arnaldo Otegiaren eskutik. Aurretik eta gero, agertoki politikoan astindu ederrak gertatu dira, armagabetzea eta Kataluniako bereziki, ezker abertzalearen iparra aldarazi ez baina orratza zertxobait mugiarazi dutenak. Barruko egoerari zein kanpokoari, bie erreparatzen die Arkaitzek elkarrizketa honetan, baina batez ere etorkizuneko erronkez mintzo da, antsietateari ihes egiten baina gauza batzuk 2018an erabaki beharko direla jakinda.



SAKONEAN
ARKAITZ
RODRIGUEZ

“Kataluniako irakaspenek hausnarketa sakonak eskatzen dituzte. Eta aurrean ikaragarria. Eta onartzea bide horretan kontraesan handiak izango ditugula.”

«Iraultza kontserbadorearen aurrean, gauzak alda daitezkeenaren perspektiba, ilusioa eta anbizioa behar ditugu»

SAKONEAN
ARKAITZ
RODRIGUEZ



«Euskal Herria ez dago ezker abertzalearen zain, haren erronkei gogoz eta indarrez ekiteko urtea behar du izan 2018ak»

Jada urtebete pasa da Sortu berria sortu zenetik. Birfundazio hitza erabili zen orduan, hitz potentea. Hainbestera izan al da aldaketa? Beste ezeren aurretik, balioan jarri nahi dut aurreko zuzendaritzaren lana, bere akats eta ekarpen guztiak: estrategia berriaren konsolidazioan egirikoa hor da, zeregin nagusi eta ezinbesteko gisa. Baina aldaketa handia eman da orain, bai. Duela bizpahiru urte une konplikatua pasa zituen ezker abertzaleak. Bai estatuak bai EAJk bake prozesuari eta, oro har, prozesu politikoari jarritako galgak, eta blokeo egoera hori apurtzeko ezintasunak, noraez estrategiko eta blokeo handi xamarrean murgildu zuten ezker abertzalea. Bestalde, ordurako goia joa zuten disfunczio organizatiboek: strategiaren aldaketaren ostean ez zen tamainako aldaketa organizatiborik egin. Aurreko faseko funtzionamendu berdinarekin jarraitzen genuen, bertikalismo eta kontsignismo inportante batekin. Ondorioz, pultso bajaran zegoen ezker abertzalea, eta Sortu, arlo organizatiboan ahul, eta autoritate, sinesgarritasun eta atxikimendu falta nabarmen batek jota. Horregatik

erabili zen birfundazio hitza. Aldaketa handia egin beharra zegoen: termino estrategikoetan, aldebakartasuna berreskuratu beharra zegoen, bai bake prozesuaren bai prozesu politikoaren blokeoaren aurkako antidoto eraginkor bakar gisa; eta termino organizatiboetan, iraultza oso bat egin beharra zegoen, estrategia aldaketaren lehen iraultzari jarraituko zitzaiona. Horren guztiaren ostean, iruditzen zait giroa dezente hobetu dela, eta galdutako pultsoa berreskuratzen hasiak garela. Horrenbestez, balorazioa positiboa da. Beste kontu bat da, orduan ere esaten genuen, birfundazioa ez dela gauetik goizera egiten. Prozesu bat izango da, urteak beharko dituen, kultura politiko-organizatibo bat ezin baita kolpe bakar batez aldatu, aldaketa kolektibo eta are pertsonal handiak eskatzen dituelako.

Introspektzio fase nahiko luzea igaro du ezker abertzaleak. Esan liteke autoa taillerrean sartu zela, txekoa egin, txukundu, garbitu eta berriz kalera atera dela. Itxuraldatua dago, baina erritmoa hartu du jada edo motel dabil oraindik? Amaitutzat eman behar dugu

barne ariketa hori, nahiz eta, esan dudan bezala, birfundazio prozesu horrek urteak beharko dituen. Euskal Herriari begira jarri behar gara, askapen prozesuari begira. Organizatiboki hobetzen segi behar dugu, kultura politiko berria indartzen jarraitu behar dugu, baina Euskal Herriak ez du itxaroterik, ez dago ezker abertzalearen zain. Erronkak mahai gainean dira eta horiei gogoz eta indarrez ekiteko garaia da. 2018 horretarako urtea izan behar du.

Politikoki urte mamitsua izan da 2017, batez ere Katalunian gertatu denagatik. Sorturen aurreko eskemak aldarazi ditu? Esaldi famatuari helduz, erantzunak ikasi ondoren ez al dira galderak berriz goitik behera aldatu? Ez al da dena berriz birpentsatu behar?

Hein batean bai. Bat nator GARAN planteatu diren analisekin, familia politiko guztien errelatoak aldarazi edo lehertu ditu Kataluniarenak. Desbordatu dituela esango nuke nik. Funtsean gertatu dena ez zaigu arrotz, jakin baikeenien Estatu espainolarekin ez zegoela benetako aldebatasunerako aukerarik. Baina ikusi dugu ere aldebakartasunaren

errelato horrek mugak izan baituela. Kontuz, honekin ez dut esan nahi aldebakartasunaren errelato hori egia ez denik; gaur gaurkoz erabakitzeko eskubidea gauzatzeko modu bakarra aldebakartasunarena da. Baina Kataluniak batetik erakutsi du hori posible dela, gizartearen gehien-go baten mandatuz une batean independentzia aldarrikatzea posible dela, baina gaur gaurkoz ez da posible izan Errepublika hori gauzatea, independentzia hori egikaritzea. Nolanahi ere, Kataluniarena ez da bide amaitua. Puntu batera iritsi dira, gutxi espero zuten puntu batera hain zuzen ere, eta hemendik aurrera hortan datza erronka: nola egin Estatu independente hori gauzatzeko.

Eztanda horrek, aukera gehiago edo aukera gutxiago uzten ditu Euskal Herriak ere aurrera egin dezan?

Nire ustez, aukera gehiago, gutxiago baino. Izan ere, onartu beharra dago Kataluniakoak, edo, hobe esanda, estatuak emandako erantzun bortitzak, beldurra, eta, ondorioz, desmobilizazioa eragin ditzakeela, askorentzat halako egoera batera iritsita erdarazko adagio famatuak funtzionatzen duelako: «más vale malo conocido que bueno por conocer». Baina egia da ere, batetik, Kataluniakoak 78ko erregimenaren pitzadura handitu duela, estatua aspaldiko krisirik sakonenean murgilarazi duela, eta horrek aukera-leiho berri bat zabaldu diela estatuko nazioei, eta, beraz, baita Euskal Herriari ere. Bestetik, zailtasunak zailtasun, Kataluniakoak posible dela erakusten du: posible da gehien-go sozial soberanista bat eraikitzea, termino instituzionalan ere proiektatuko dena, eta instituzioak prozesu soberanistaren eta estatu eraikuntzaren zer-

SAKONEAN
ARKAITZ
RODRIGUEZ



“Oso garrantzitsua da ulertzea kentzen diogun bahitu politiko bakoitza badela nolabait Estatuari txantaia egiteko gaitasuna murrizten dion urrats bat. Mentalitate honekin jokatu behar dugu.”

bitzura jarriko dituen. Azkenik, Kataluniarenak erakusten du zein oztopo eta zein zailtasun sor daitezkeen bidean, eta hori abantaila bat da antzeko bidea egin nahi dugunontzat. Zailtasun edo arazo horiei aurre hartzeko aukera eskaintzen dizulako (XVIII-XIX. mendeko industrializazio prozesuen kasuan "jarraitzailearen abantaila" esan izan zaio horri). Bada, irakaspen nagusiak lirartekete: batetik, gehiengo independentista sendo bat eraiki beharra, ez soilik %50 gaitutuko duena, baizik eta independentzia gauzatea ahalbideratuko duena, estatuaren tresneria errepresiboa kontra edukita ere. Bestetik, alde aurretik ahal bait burujabetza ekonomiko handiena izatea, edo bestela esanda, estatuarekiko ahalik eta menpekotasun ekonomiko txikiena izatea, ikusi baitugu zer nolako xantai ahalmena duen estatuak arlo ekonomikoan. Hirugarrenik, gaurdanik prozesuarekiko nazioartearen konplizitatea lantzea legoke, ikusten ari baikara egiaren orduan, gehiengo independentista batek, berau

ezinbesteko baldintza izanda ere, deus gutxirako balio duela baldin eta nazioartearen babesik ez badaukazu. Eta, azkenik, lurraldearen kontrolaren afera legoke: katalanak gai izan balira independentzia aldarrikapenaren hurrengo egunean lurraldearen kontrola era efektiboan bereganatzeko independentzia egina legoke. Hori bi modutan egin daiteke: edo baduzu aski indar polizial edo militar (Mossoen kontrola edota aldekotasuna, Katalanen kasuan; Ertzaintzarena eta Foruzainena, Euskal Herriarenean), edo jendearen bidez egiten duzu. Edo are eraginkorragoa litzatekeena: bitara. Eta noski, horrek guztiak hausnarketa sakonak eskatzen ditu. Eta aurrean ikaragarria. Eta onartzea bide horretan kontrarian handiak izango ditugula.

Edonor zoratzeko moduko abiaduran gertatu da Kataluniako prozesuaren fase hau. Euskal Herrian oso onartua dago beste erritmo eta epe batzuk beharko direla. Baina bitartean herria hozteko eta

deskonektatzeko arriskua ere bada. Presaz abiatu behar al da prozesu independentista ala itxoin daiteke? Denborarik ba al dugu?

Denetako esperientziak aurki daitezke munduan, baina esango nuke irizpide orokor bezala urgentziak eta antsietateak ez direla lagungarri. Eta esan beharra dago, ezker abertzalean oso ohituak gara trenen pasera hitzegiten, egoera guztiak hil ala bizikoak bailiran bizitzen, orain ala inoiz ez... eta horrek ez du laguntzen, gauzak patxadaz egin behar dira eta mimetismo hertsingandik ihes egin behar dugu. Bestalde, egia da prozesu hauek ezin direla gehiegi luzatu; Quebecen ikusten dugu 90. hamarkadan bi saiakera egin zirela, independentismoa mugamugan gelditu zela baina ez zela helmugara iritsi, gero fase luzeago bati ekin ziotela eta orain hotz dagoela mugimendu hura. Gurera etorrita, Katalunia eredu gisa jartzen dugu ez daudelako mila bide helburua lortzeko. Funtsean bi bide baino ez daude: Quebec edota Eskozia batetik, Estatuaren bide demokratikoa eskatzen duena, eta bestetik Espainia edota Turkiarena, oinarrizko printzipio demokratiko bat onartzeko prest ez daudena. Horregatik diogu hemen egin beharko den prozesua Kataluniakoaren antzerakoagoa izango dela Eskozian egin dutenarena baino, baina ez berez Kataluniakoa hobea iruditzen zaigulako. Beste eredu mila bider nahiagoko genuke, baina Estatu espainola ez da Erresuma Batua ez eta Kanada ere.

Europar Batasunak afera honetan hartu duen posizioa ikusita, berrirakurketa egin behar du ezker abertzaleak Europari buruz?

Goizegi da hori esateko. Europa



“Aro berri bati hasiera eman behar zaio, Euskal Herriaren biziraupenerako minimoak bermatzera baino, Euskal Errepublikaren oinarri materialak jorratzera zuzenduko zaiona.”

SAKONEAN
ARKAITZ
RODRIGUEZ



lerratu da Estatu espainolarekin, egia da; agian ez da erabat lerratu, baina lerratu da. Katalunian nahiko harriturik geratu dira honekin, ez zuten espero, baina inozoa litzateke pentsatzea Europak besterik gabe onartuko lukeela Kataluniakoa bezalako boteretze prozesu bat arrakastatsua izatea. Grezian ere ikusi genuen aurretik. Elite mailan gertatzen da hori. Europako eliteek ez dute horrelakorik inolaz ere nahi, munduko herriei eta munduko klase zapalduet begira oso irakaspen garrantzitsua izango zelako. Behetik gora abiatutako boteretze prozesu baten bitartez gauzak alda daitezkeela frogatzea, noraino eta Estatu independente bat sortzeraino... hori ezin dute baimendu. Hau guztia esanda, goizegi da European Kataluniakoak zein ondorio utziko duen jakiteko. Independentismoak erronkari eusten badio, eta momentuz eutsi dio eta abenduaren 21eko emaitzekin nola eutsi gainera!, gehiengo hori behin eta berriro erakusten eta berresten bada, ikusteke dago zein posizio hartuko duen Europak azkenean. Ez dut uste Greziako errezeta berdina Kataluniari behin eta berriro aplikatu diezaiokeenik. Egonkortasun arazoa izango du azkenean. Eta sinesgarritasun arazoa ere bai. Europako elite horien interesak zeintzuk diren badakigu, baina itxura gordetzeko beharra ere badute. Esparru soberanista-independentista zabaldu eta hauteskunde deialdi batean (gutxienez) %50aren gainetik kartzarekin batera, Nazioartearen konplizitate handiagok lortzeko erronka dute aurrean katalanek, eta ikusiko dugu azkenean Europak ez ote dion eskakizun horri aterabide demokratikoa emateko beharrik izango.

Gurera etor gaitezen; Gasteizko Legebiltzarrean estatus berriari



buruzko lantalde horretaz zer-bait espero duzu? Gutxi, asko? Testingurua kontraesankorra da, gainera: bertan urratsa planteatzen denean, Estatuan itxikeria nabarmena da eta zentralismo joerak nagusi.

Guk esaten duguna hau da: herri honetan erabakitze eskubidearen alde dauden indarrek akordio bat erdietsi behar dute. Bi arrazoiengatik; bata, aspaldi dakigu marko hau agortuta dagoela, 20 urte pasa dira geroztik; bigarrena, hori gutxi balitz, une honetan salbuespen egoera batean gaude, nahiz eta askotan horren kontzientzia galdu egin daitekeen. Kataluniarenak 155. artikulua ezarpena ekarri du eta autonomi sistema hankaz gora jarri du horrek. Inozoa litzateke planteatzea Estatuak Kataluniarako planteatu duen errezeta hori soilik Kataluniarakoa denik. Inondik inora ere. Estatu mailan inboluzioa abian da, kontraerreforma etorri da, eta gudan zeregina izango du dudarik gabe. Adibidez, Kontzertu Ekonomikoaren aurkako ahotsak ez dira berriak, aurretik ere baziren, baina berria da batetik orain hartu duten indarra, eta berria ere bada 155aren bidez aurkako mehatxu hori gauza-tzen hasi dela. Orduan, autonomia gaintzeko akordio hori nahitaezkoa dugu. Behingoz, azken 20 urteotan aipatu den autonomiatik subiraularako trantsizio hori gauzatu behar dugu. Hortxe gaude, bi zikloen arteko trantsizio horretan. David Fernandez hitzak hartuz, berak esan izan du «¿qué larga se está haciendo la transición de la dictadura a la democracia!» eta nik esango nuke «autonomismotik subiraularako trantsizioa luzea izaten ari da gero!». Herri gisa transito hori egiteko saiakera ezberdinak egin ditugu: Lizarra-Garazi izan zen lehena (1998-2000), Ibarretxe

Plana gero (2004-05), Loiolako elkarrizketena jarraian (2006-07)... eta orain laugarren saiakera baten aurrean geundeke. Horretarako, aldagai kualitatibo berri garrantzitsua dugu, edo bi, hobe esanda: ezker abertzalearen estrategia aldaketa, batetik; eta, estrategia berriaren baitan, prozesu konfederal eta asimetrico baten aldeko apustua, bestetik. Laugarrenean bai lortu beharko genuke. Eta autogobernu ponentzia horren zioak edo zereginak horrek beharko luke. Besterik da kezka ikusten dugula EAJren posizio politikoa. Ibarretxeren aldia pasata, neoerregionalismo edo neoestatutismo baten jarrera nagusitu dela ikusten baitugu.

Ezker abertzaleak historikoki bi jarrera izan ditu EAJren aurrean: eskua luzaturik batzuetan, egurra ematen besteetan, biak tartekatuz beste hainbatetan... zer tokatzen da orain? Nola mugiarazi?

Akordio horretarako gai izan beharko genuke erabakitze eskubidearen alde gauden indar guztiek. Ikusi dugu Felipe VI.aren diskurtsoak diziplinatu egin zituela bloke unionista horren kide guztiak, eta Espainiaren batasunaren defentsan bat egiteko ez dutela inolako arazorik izan PPK, Ciudadanosek, PSOEek... Bada, herri honetan sinisten dugun indarrok ere gauza bera egiteko gai izan beharko genuke, adosteko gai izan beharko genuke. Orduan, egungo galdera da EAJren oraingo dekantazio hau (PSOE eta PP alderdiekin akordioak eginez) egiturazkoa ote den ala koiunturala bakarrik. Argi duguna da EAJk autogobernu ponentzia honetan hartuko duen erabakiak, printzipioz, belaunaldi oso baterako determinatuko duela bere posizioa. Hurrengo hilabeteetan ikusiko dugu. Eta gauza bat kontutan

SAKONEAN
ARKAITZ
RODRIGUEZ

hartuta erabaki behar du: une honetan Estatuak ez du tarteko bideetarako aukerarik uzten, denaren bila dator orain. Egungo egoera 1997. urteko 'a por ellos' leloaren harekin parekatuko nuke. Gerta daiteke honek EAJ burujabetzaren alde lerratzea ekartzea edo justu kontrakoa: beldurraren kudeaketa hutsa egin nahi izatea, orain bezala segitzea edo, auskalo, orain baino pixkat gutxiagorekin ere, dena galtzea baino hobe dela argudiatuz. Zerk determinatuko duen alde batera edo bestera egiten duen? Bada, batetik, eta paradoxikoki, estatuak berak, birzentralizatorako bere jarrera bortitzarekin gaur gaurkoz egin nahi ez duen hori egitera behar baitezake EAJ; eta, bestetik, ezkerreko subiranismoaren indarrak. Horregatik diogu ezkerreko esparru subiranista hori artikulatu behar dugula, eta aktibatu, eta mobilizatu, lehenbailehen gainera. EAJk subiranista estatus baten alde egitea eta, estatus horren bila, estatuarekin konfrontatzea beste aukerarik izan ez dezan. Eta, bestela, beste behin ere estatuarekin lerratuz gero, bere oinarriaren parte inportante baten babesa galtzearen eta hegemonia subiranista eta ezkerreko bati bide ematearen prezioan izan dadin. Hein handi batean, gure esku dago, beraz.

Azkeneko inkestek erakusten dutena kezagarria da ezker abertzalearentzat: euskal gizartea gero eta kontserbadoreagoa, beldurriagoa, indibidualistagoa azaleratzen da. EAJren bilakaera horretan, hegemonia politikoa eskuratzear gain hegemonia soziala ere lortzen ari da? Erakundeak izateaz gain, baloreak ere kontrolpean al ditu?

Hein batean bai. Iraultza kontserbadorea gertatu da

EAJren eskutik: termino nazionaletan, bai bake prozesua bai askapen prozesua “izozteko” estatuaren estrategiarekin bat eginez; termino sozio-ekonomikoetan, Confebask-en aginduak zintzo betez; baloreenetan... termino guztietan. Errealitatea da. Mundu mailako joera ere bada, ez bakarrik hemengo: beldurraren hustiaketa, esaterako. Kezkatzen gaitu, jakina. Ezker abertzalea eta ezkerreko subiranismoa indar ez zitezen herri honen potentzialitatea indargabetzen aritu da, eta hein handi batean lortzen ari da. «Profecía autocumplida»-tzat ere har dezakegu. Horren aldeko apustua egin du, eta hori gertatzen denean, aitzakia modura ere erabiltzen du, Kataluniako prozesua ‘jendeak ez du nahi’ esateko, esaterako. «Estabilidad», egonkortasuna, hau da hitz feditxe berria. Eta guk, aldiz, herri bultzadaz, auto-antolaketa, gauzak alda daitezkeenaren perspektiba, ilusioa eta ambizioa behar dugu. Moda modako kontzeptua erabiltzearen, hegemonia lehiatu behar diogu, ez termino elektoraletan, edo ez termino elektoraletan soilik, bederen, baizik eta termino kulturaletan, balioenetan. Erronka erantsia da guretzako. Eta Kataluniarenak, hein batean behin-tzat, laguntzen du honetarako.

Zein palanka ikusten du Sortuk aldaketaren eta subirautzaren alde egiteko? Sindikatuak, feminismoa, «euskal oasian» bizi ez direnak... zeintzuk ikusten ditu bidailagun egoki eta beharrezko?

Rafa Diezek planteatu du behin baino gehiagotan; «Maltzaga sozial» baterako baldintzak egon badaude gaur-gaurkoz, aipatu dituzun horiekin esaterako. Independentismoa bigarren indar politikoa da herri honetan, ez da ahaztu behar. Bada nazio aitortza eta erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengoa. Eta bada mugimendu sindikal potentea, klasekoa, subirautza eraikitzearen aldekoa; Katalunian ez zuten hori. Aktibaziorako ahalmen handiko eragile asko daude: Gure Esku Dago, mugimendu feminista, gazte mugimendua... Horiekin guztiekin artikulazio berri bat egin behar da, sakoneko aldaketa politikoa eta sozial baten alde, burujabetza politikoaren eta ekonomikoaren alde, euskal/nafar demokrazia baten alde, estatu propio baten alde.

Zabal dezagun esparru geografikoa. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian dinamika politiko oso interesgarriak daude, beste giro bat ikusten da. EAEn motelaldia aipatu dugu. Bilbon, euskal metropolian, hutsune nabaria

du ezker abertzaleak. Nola kudeatu hau guztia, alde onak eta alde txarrak?

Arestian esan bezala, estrategia aldaketaren baitan, bide politiko eta demokratiko soilekiko apustuaz gain, prozesu konfederal eta asimetriko baten aldeko apustua egin dugu, eta nabarmendu nahi nuke galdera honen harira. Estrategia honek aukera ematen du egun Euskal Herria zatitua dagoen esparru administratibo bakoitzean bertako indar harremanen eta erritmoen arabera aurrera egin ahal izateko. Lehen gure estrategiak arazo nagusi bat zuen: lurralde batasuna erabakitzeko eskubidearen gauzapean oinarritutako prozesuaren abiapuntutzat eta baitezpadako baldintzatzat hartzen zuela, “denak ala inor ez” logikaren baitan, eta horrek, prozesua erraztu eta azkartu baino, zaildu egiten zuela, batetik, esparru administratibo guztiak ere batera (EAEn erritmora) mugiaraztea exijitzen zuelako, eta, bestetik, alde bikotasuna nahitaezkoa zuenez gero, estatuei prozesu politikoaren gaineko blokeo ahalmena eskaintzen zuelako. Lurralde zatiketa Estatuak egin zuten eta ez dugu onartzen, baina errealitate horren gainean lan egin behar dugu. Hala, orain,

lurralde batasuna prozesuaren hasieran ez, baizik eta bukaeran kokatzen dugu, erabakitzeko eskubidearen emaitza gisa. Telesforo Monzonek erabili ohi zuen metafora geurera ekarrita, estatuek apurtutako jarroia termino demokratikoetan (esparru administratibo bakoitzean horren aldeko gehiengo demokratiko bat eraikita) berrosatzea planteatzen dugu. Euskal Errepublikak Konfederalaren eraikuntza prozesua horrela ulertzen dugu, asimetriko, esparru bakoitzak azken geltokirakorako bidea bere erritmoan, bere bitartekoekin eta bere beharren arabera egin dezan. Zentzu horretan, eremu administratibo guztietan eraginkorra izango den estrategia-ra hurbiltzen gara. Besterik da eremu administratibo horietako bakoitzean ere guztiz bestelako errealitateak aurki ditzakegula, eta, gaur gaurkoz, hirigune handietan (Bilbo Handian, batez ere), hutsune handiak ditugula. Horixe da datozen garaiari begirako etxekolan nagusienetako bat: hirigune handietan (Bilbo Handian, batez ere) eraginkorra izango den interbentzio eredu independentista eta eraldatzaile bat asmatzea.

Armagabetzea izan da 2017ko beste mugarri bat. Aski ezaguna da zein bidetik lortu den, baina honekin bukatzen al da aldebakartasuna? Hurrengo faseek (presoak etxera ekartzearena bereziki) ezinbestean alde bikotasunik ez al dute exijitzen? Edo bada oraindik aldebakartasunerako tarterik?

ETAren desmobilizazioaren kontua hor da oraindik eta termino alde bakarrekoetan ari da lantzen. Presoen auziari buruz, garbi esan beharra dago gatazkaren ondorioen konponbide osoa ezin dela soilik aldebakartasunetik lortu. Urrats batzuk eman ahal



ziren oraindik eta eman dira, EPPKren erabaki ausartarekin, baina ezin ahantz dezakegu espetxeen giltza estatuek dutela. Hemendik aurrera, Hego Euskal Herrian ere, Ipar Euskal Herrikoen moduko alde anitzeko konpromisoak dira behar direnak: erakundeenak, gizarte eragileenak, presoena beraiek... Estatuek espetxeetako atea ireki ditzaten behartzeko hori beharko da, alde anitzeko ekimena.

Presoen esparru honetan, txanponaren alde batean Parisen eratu den lan esparru komun itzaropentsua dugu, baina bestean egoera zeharo muturrekoak jasaten dituzten presoak etxera ekartzeko ezintasuna. Zerk du pisu gehien, argi izpiak ala ilunak?

Askotan esan dugu eta beti present behar dugu izan: Estatua prozesu politikoa blokeatzeko ari da presoak erabiltzen. Burujabetzarunzko prozesu hori tratatzea da bere helburua. Ez dio hori egiteari utziko, bere borondate propioz behintzat ez. Argi izan behar dugu alde bakarrek urratsek ez dutela inoiz izan Estatuaren esijentziak betetzeko asmorik, definizioz ase ezinak direlako esijentzia horiek, asegarriak ez izateko diseinatuta daude, behin eta berriro langa igotzen aritu dira eta etorkizunean ere horrela jarraituko dute. Hori horrela izanda, garbi planteatu behar da zaila izango dela lortzea eta egoera anibalentea topatzen jarraituko dugula: itzaropenerako motiboak izango ditugu batetik (oraingo Parisekoa edo lehehenengo armagabetzearena, gogoratu behar delako Estatuak hori ere gertatzea ez zuela nahi), baina bestetik betiko txantaia ere parez pare izango dugula, Estatuak ez baitu aldatzeko asmorik txikiena ere. Oso garrantzitsua

da ulertzea kentzen diogun bahu politiko bakoitza badela nolabait Estatuari txantaia egiteko gaitasuna murrizten dion urrats bat. Mentalitate horrekin jokatu behar dugu.

Urte honetan presoen alorrean hainbat ardura hartu ditu Sortuk: preso politikoen batzordea hor da, Kalera Kalerak antolatuturiko mobilizazioak... Zergatik eta zertarako?

Presoen kaleratzea beti izan delako garrantzitsua, baina une honetan oraindik garrantzitsuagoa delako, aipatu ditudan arrazoiengatik. Eta drama humanarioa ere badelako. Baina politikoki kartzelak ahalik eta azkarren husten joateak berebiziko garrantzia du. Ipar Irlandan bezala planteatzen dugu guk hemen: gerra -gataz-ka politikoen alde armatua, hobe esanda- bukatzen denean, preso guztiak etxera itzuli behar dira. Hau guretzat ez da negoziagarria; beste kontu bat da nola eta zein epetan egiten den hori, eta honetarako Euskal Herrian ibilbide orri adostua proposatzen dugu. 2018 urteak izan behar du ibilbide orri hori adosteko urtea. Zertarako? Behar diren ekimen instituzionalak, politikoa eta abar martxan jartzeko. Eta zertarako? Estatua behartzeko.

Zuekin belaunaldi berri bat sartu zen Sorturen zuzendartzan, dextente gazteagoa. Gazte mugimendutik zatozte, gainera, ordezkari asko. Gaztedia aktibatze edo berraktibatze-ko lagungarri izaten ari da?

Aldaketa garrantzitsua ikusten dut azken hilabeteotan. Duela bi urte-edo egoera zail samarra bizi izan zuen ezker abertzaleak eta tartean Sortu eta Ernairen arteko nolabaiteko urruntze bat bazen. Sortuk Ernairi behar bezalako arreta ez ziola eskaintzen ustea izan bazen. Birfun-

dazioarekin konfidantza berreskuratu dela uste dut. Belaunaldi aldaketarena errealtate bat da. Azken urteotan erlajamendu bat gertatu zen inpresioa badut, baina orain berriro engantxe bat gertatzen ari dela iruditzen zait, belaunaldi oso baten birpolitizazioa independentziaren klabeetan oinarrituta, eta honetan ere zerikusia du Katalunian gertatzen ari denak.

Birfundazioak bazituen beste helburu batzuk: ateak irekitzea, partehartzea sustatzea, inteligentzia kolektiboa baliatzea aipatzen zen... Lortzen ari dira?

Hasi gara proiektuak zehazten eta mahaigaineratzen. Egia da lehenengo urte honetan ibili garela gehienbat egoerari neurria hartzen, zuzendaritzan aldaketa ia erabatekoa izan baitzen. Orain ekingo diegu kultura politiko-organizatiboari dagozkion kontu horiei. Zehazki, tailerrei helduko diegu: pare bat egin dugu, euskalgintzarekin eta desmilitarizazioari buruz, eta oso positiboak izan dira. Herrigintzarena abiatuko dugu. Sortuk erraztu nahi du herrigintzaren gainean hausnarketa oso bat egin dadin. Gure ustez gero eta eragile gehiago iristen ari da ondorio batera: ziklo oso bat agortu da edo agortze bidean da, ia 60 urteko zikloa izan dena, kooperatibena, ikastolena, Herri Urrats eta halakoena, eta abarrena. Aro berri bati hasiera eman behar zaio, beraz, Euskal Herriaren biziraupenerako minimoak bermatzera baino, Euskal Errepublikaren oinarri materialak jorraztera zuzenduko zaiona. Erraztaile lana egin eta horretarako marko bat eskaini nahi dugu. Sormen kolektiborako guneak dira tailer horiek, irekiak. Eta horietan herrigintzako marko, espresio eta egitasmo ezberdinetan ha-

markadotan zehar lanean aritu diren eta, egun ere, lanean ari diren ezker abertzaleko kideen esperientzia nahiz inteligentzia kolektiboa bildu eta baliatu nahi ditugu. Bestalde, ezker abertzalearen komunitatea saretu eta trinkotzeko eta, herrigintzako tailerren kasuan bezalaxe, haren inteligentzia kolektibo guztia askapen prozesuaren zerbitzura jartzeko egitasmo ezberdinak dauzkagu eskuartean: aldizkari hau bera da horietako bat; alde anitzeko komunikazioa ahalbideratuko duen plataforma telematikoa, beste bat; Eskola Politikoa, hirugarren bat. Militantzia ereduak ere aldatzen ari diren garai likidootan, ekarpen militanterako aukerak, bideak eta esparruak biderkatzea da horien guztien helburu bat; Kongresuko ponentzian esaten genuen bezala, euskal estatuaren eraikuntza bidean ekarpen forma eta intentsitate guztiak ere behar beharrezkoak direlako, txikienetik hasi eta handieneraino, puntualenetik hasi eta iraunkorreraino.

EH Bilduren berregituraketa ere ekarri du 2017. urteak. Gauza batzuk eragin ditu: Aralarrek bere burua desegitea, esaterako. Aurreko galderan sakonduz eta hau gogoan izanda, zein da Sortuk bere buruari ematen dion funtzioa?

Oso garbi dugu erreferentzia politikoa eta instituzionala EH Bildu dela, arestian aipatu ezkerreko esparru subiranista horren artikulaziorako lehen-tasunezko tresna. Eta, hartara, Sortuko kideon zeregin nagusienetako bat EH Bildu indartzeari dela. Sortu haren osagarri gisa definitzen da. Hori horrela, ezker abertzaleko kidegoari elikadura politikoa eta mapa estrategiko argi bat emate-

ko funtzioa du Sortuk, kidego hori edozein tokitan dagoela ere (EH Bildun, sindikatuetan, herrigintzako egitasmo ezberdinetan, herri mugimenduetan, bizilagun elkarteetan...) koiuntura politiko, sozial eta ekonomikoaren eta nondik nora goazenaren argazki gaurkotua eta osoa izan dezan. Horrekin batera, prozesu independentista-eraldatzailearen azpiegitura lana egin nahi du, logistika jarri, erraztaile izan. Gainera, herrigintzaren ziklo berri hori bultzatu nahi du, eragiten eta parte hartzen. Azkenik, beste inork egingo ez dituen praktikak eta diskurtsoak egitea dagokio Sorturi, ezin ahantz baitezakegu, EH Bilduren egitasmoak sektore eta kultura politiko ezberdinen egitasmoen arteko minimo komun txikiena (sintesia, hobe esanda) dela, eta Sortuk, ezker abertzaleak, proiektu politiko propioa dutela. Hala, aktibismo propioa ere (diskurtso eta, kasuan, mobilizazio propioak) lantzea badagokio Sorturi, hiru esparrutan, nagusiki: independentziaren alde, sozialismoaren alde, eta preso politikoen kaleratzean alde (Kalera Kaleraren bitartez egiten ari dena) •

SAKONEAN
ARKAITZ
RODRIGUEZ

Euskal Elkargoa: ibilbide baten irakaspenak eta perspektibak

2017. urtea hastearekin batera sortu da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bildu dituen lehen instituzioa. Euskal Elkargoaren sorrera ibilbide luze baten emaitza da. Subjektu politiko eta instituzional berriak lurraldetasuna ezagutzearen balio erantsia du, bere argi ilunak izan badituen ere. Aurrera begira, fase eta eszenatoki berri baten abiapuntu ere bada.

Eskuinean: Enbata mugimenduak deituta 1963an Itsasun ospatu zen Aberri Eguneko manifestua.

Egoitz Urrutikoetxea.



ITSASUKO AGERIA

Egun, 1963-ko Aahirilaren 15-an, **ABERRI** egunean, Lapurdiko Itsasun landatu dugun arbolaren pean bildurik, huna zer jakin arazten dugun :

GUK ESKUALDUNEK,

Zer giren :

- Lurraren, Arrazaren, Mintzaiaren, Ohiduren aldetik **HERRI** bat eta bakar bat gira.
 - Iragan demborako eta egungo **Nahiaz NAZIONE** bat gira.
 - Naturaz eta Istorioaz **DEMOKRAZIA** bat gira.
- HERRI NAZIONE, DEMOKRAZIA GISA,**

Zer diogun :

- Batasunaren obratzeko eskubidea.
- Gure buruaren jabetasun osoa nahi ditugu. Herri bakhotchari zor baitzako, mende huntan, bere buruaren gobernatzeko dretchoa,

Jakin arazten dugu :

Gure **NAZIONE** guhurrek gobernatu nahi dugula. Bertze Herrieri gure Eskual Herria **NAZIONETZAT** onhar

XVIII. mende bukaeran Frantziako Iraultza burgesak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako legedi propioak zein lurralde-biltzarrak desegin zituenetik, etengabekoa izan da hiru euskal lurraldeak instituzio bakarrean biltzeko aldarrikapena. Urteetako borroka gogoratu gabe nekez irudika daiteke Euskal Elkargoaren sorrera prozesua

EUSKAL ELKARGORAINOKO IBILBIDEA

XVIII^o mende bukaeran Frantziako Iraultza burgesak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako legedi propioak zein lurralde-biltzarrak desegin zituenetik, etengabekoa izan da hiru euskal lurraldeak instituzio bakarrean biltzeko aldarrikapena.

Sortzen ari zen Estatu eredu berriak tema berezia ezarri zuen lurralde antolaketa berriaren perimetroak ez zezan bat egin euskal lurraldetasunarekin (eta gainerateko beste herriekin). Estatuak frantses nazioa egitea zuen helburu, eta bide horretan oztopoharri ziren bereizgarri guztiak desagerrarazi behar ziren.

Orduz geroztik Frantzian eskubideak dituen subjektu bakarra hiritarra da, hiritar guztien baturak frantses nazioa osatzen duenak. Frantziako Estatuak ez du nazio aniztasunik ez eta hizkuntza aniztasunik onartzen. Legez, ez dago nazio eta hizkuntza ofizialik frantsesa ez denik.

Hasiera beretik, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeak batzea helburu zuten proposamen guztiek eraikuntza ideologiko horrekin egin dute topo. Euskal lurraldetasunaren ezagutza etengabe agertu den gainditu ezinako marra gorria izan da.

Hortaz, urteetako borroka gogoratu gabe nekez irudika daiteke



EAJK deituta 1963an Parisen ospatu zen Aberri Egunaren kartela.

Euskal Elkargoaren sorrera prozesua. Ibilbide luze hori ezagarrizkotan, esan genezake hiru fase nagusi izan dituela.

Abertzaleen aldarrikapena

Lehen faseak, hirurogei hamarkada hasieran abertzale mugimenduaren sorrerarekin bat egiten du. Enbata mugimenduaren sorrerarekin hasten da, 1963ko Aberri Egunean Itsasun irakurriko den agiriarekin. Aldarrikapen instituzionala batez ere abertzaleen aldarrikapen gisa agertzen da, adierazle ideologiko nabarmenarekin. Hasiera batean Enbata mugimenduak Euskal Departamenduaren aldarria plazaratuko badu, laurogei

eta laurogeitamar hamarkadetan Iparretarrak erakundearen eskutik Autonomia estatutuaren aldarrikapenak indarra hartuko du. Biak ala biak aldarrikapen taktiko gisa ezaugarrituko dira.

Eta abertzale mugimenduaren proiektuaren definizio ariketa-aren baitan kokatuko dira, lehen denbora batean printzipiozko deklarazio gisa eta oinarri sozial abertzaleari zuzendua.

Garai horietan ez da funtsezko masa mugimendurik antolatuko ezagutza instituzionalaren alde. Alabaina, abertzale mugimenduak eragin indarharremanak Frantziako Gobernu mugitzera behartuko du.

François Mitterrand PSFeko presidentearen azken agintaldian, abertzaleen aldarrikapenei zuzenean erantzun gabe, Frantziako Gobernuak gogoetarako egiturak sortzea proposatuko du. Hurrenez-hurren, Garpén Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua sortuko dira 1994 eta 1995 bitartean. Egitura hauen egitekoa, Ipar Euskal Herriaren beharrei loturiko diagnostikoak lantzea, helburuak finkatzea eta beharrezkoak diren politika publikoak eta estrategiak zehaztea izanen da, bestelako inolako eskumenik gabe. Haatik, Estatuaren helburua aldarrikapen instituzionala indargabetzea baldin bazen, kontrakoa gertatuko da.

Ariketa horretan herri mugimendu eta sektore ezberdinetan ari diren pertsonak



2015eko urriaren 24an Baionan Euskal Elkargoaren eta euskararen ofizialtasunaren alde manifestazioa egin zuten milaka lagunek.

eskuz esku arituko dira, jatorri ideologiko ezberdinekoak, abertzaleak barne.

Egitura horiek lehenetsiko duten lan metodologiak lankidetzak logika bat sortuko du. Eragile ezberdinen arteko elkar ezagutzak sinergiak eta konplizitateak sortuko ditu. Gogoetak modu adostuan lantzeko hautabideak diagnostiko partekatua egitera eramango ditu. Ezberdinen artean modu adostuan lan egiteak, elkarlanaren beharra lehenesten duen kultura politiko eta gobernantza berriaren oinarriak ezarriko ditu, gerora erabakigarriak izanen direnak.

Funtsean, sakoneko ariketa bat egingen da lurraldearen beharrik identifikatzeko. Luzegabe, ados-

turiko politika publikoak gauzatzeko orduan Ipar Euskal Herri mailako instituzio baten beharra mahai gainean agertuko da, modu aski naturalean. Horrela, ordurarte abertzaleen aldarrikapen gisa ezaugarritua zena, sektore ezberdinetara zabaltzen hasten da. Gaiak beste dimentsio bat hartzen du, eta Ipar Euskal Herriaren instituzio aldarria jendarteratzeko bidea irekitzen da.

Lehen masa mobilizazioak

Bigarren fasea, 90 hamarkada bukaeran hasten da, euskal departamenduaren aldeko herri mobilizazio erraldoiekin. Izaera ideologikoak haratago, egitura instituzionalaren aldarria Ipar Euskal Herriko beharrik gisa

barneratzen hasten da. Gaia abertzale mundutik ateratzen da eta lehen hedapen bat gertatzen da. Indar metaketa zabalagoak eta estrategia partekatua gauzatzeko baldintzak sortzen dira.

BATERA plataformaren sorrerak ongi irudikatzen ditu baldintza berri horiek. Herri sektore ezberdinek bat egitea deliberatuko dute, Laborantza Ganbararen, unibertsitatearen, euskararen koofizialtasunaren eta Euskal Departamenduaren aldarrikapenak uztartuz. Iniziatiba ezberdinak plataforma batean biltzeko apostu estrategikoak instituzioaren aldarrikapenaren inguruan masa mobilizazioak indartzeko bidea zabalduko du. Aldarrikapena jendartearen za-



Euskal Elkargoaren sorrera prozesua herritarrekin eta eragileekin konpartitua izan da eta hainbat batzar antolatu izan dira iritzi eta ekarpenak jasotzeko. Arg: Garapen Kontseilua

Mugaz gaineko harremanen eskuduntza eskuratzea erronka garrantzitsua izanen da, hiru esparru administratiboaren artean lankidetzarako euskal esparrua eraikitzeko.

Bozka abertzalearen bilakaerak eragin zuzena izan du, indar testimonial izatetik alternatiba sinesgarri izatera igaro baita azken hamarkadan.

Zer da Euskal Elkargoa ?

Euskal Elkargoaren erakundetzea Frantses Estatu mailako erreforma administratiboaren baitan gertatu da, eta orain arte Ipar Euskal Herrian zeuden hamar herri elkargoen fusioaren emaitza da. Frantses Estatu mailako administrazioaren deszentralizazioan oinarritzen den egituratzearren maila bat baino ez da.

Botere legegilea eta erabakitze ahalmena Estatu zentralari dagozkio. Euskal Elkargoari berriz soilik kudeaketa ahalmena dago. Hau da, ez du eredu propioa erabakitze eta legeak egiteko eskumenik. Soilik Frantses Legebiltzarrak finkatu dituen legeen ondorio diren politika publikoak egiteko eta kudeatzeko gaitasuna du.

Frantses administrazioaren baitan hiru mailatan deszentralizatzen da eguneroko kudeaketa : Herriak, Departamenduak eta Eskualdeak. Euskal Elkargoa lehen maila administratiboan kokatzen da, herrien arteko elkarretaren emaitza baita. NOTRe erreformaren bidez Estatuak eskualdeak eta herri

elkargoak indartzeko erabakia hartu du, departamenduen eta herrien kaltetan. Alde batetik, makro eskualdeak sortu dira, Aktinaia Berria kasu, eta herri elkargo txikiak handiagoetan fusionatu dira.


Euskal Elkargoaren eskumenak hamar herri elkargoek zituztenak dira. Erreforma berriaren baitan legeak aurreikusten du herri elkargo berriek departamenduetako edo eskualdeetako hainbat eskuduntza eskuratu ditzakeela, beti ere erakunde ezberdinen artean adosturiko prozesu baten baitan.

Herri artekotasunak beste ondorio zuzena du : Euskal Elkargoan parte hartzen duten ordezkariak ez dira hauteskunde zuzenean hautatuak, eta Udaletxeen osaketaren arabera zeharka hautatuak dira. Sinbologiaz haratago, Euskal Elkargoaren ordezkariak zuzenean ez hautatzeak erakundearen pisu politikoa mugatzen du.

baltzen joango da. Aurreko fasean egitura ezberdinetan eramango diren gogoetak eta elkarlanak sektore sozial eta ekonomiko ezberdinen hurbiltzea eragin baldin bazuen, jendartean aldarrikapena errotzen joango den heinean arduradun eta alderdi politikoen artean ere jarrera aldaketa eragingo du. Tendentzia politiko ezberdinetako ardura arak mugitarazi ditu, Frantses Estatuaren eta Ipar Euskal Herriko jenadartearen arteko talsa irudikatzeraino.

- Bozka abertzalearen bilakaerak ere eragin zuzena izan du, indar testimonial izatetik alternatiba sinesgarri izatera igaro baita azken hamarkadan, azken herri eta kantonamenduetako hauteskundeek argi asko adierazten duten bezala.

- Eta nolaz ez, Aieteko konferentziaren biharamunean gertatu jardueraren armatuaren bukaerak eragin zuzena izan du Ipar Euskal Herrian. Horren lekuko da inondik ere arduradun politiko nagusiek 2014ko urriaren 24an izenpetu zuten Baionako adierazpenean Ipar Euskal Herriko bilakaera instituzionalari egin aipamen zuzena gatazkaren konponbidean eman beharreko urrats gisa. Finean, euskal gatazkaren ondorioen konponbidean lortu diren adostasunak azken hamarkadetan Ipar Euskal Herrian eraiki den lan egiteko eredu eta kultura politikoaren ondorio zuzenak ere badira. Hortaz, adierazgarria da Estatuaren ordezkari ezberdinek Euskal Elkargoaren sorrera gatazkaren behin betiko konponbidea lor-tzeko eraiki den abagunearen ondorio gisa aurkeztu izana.



Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren biltzar nagusian bozketa. Arg: Garapen Kontseilua

Paradigma berri bat sortu da: euskal lurraldea erreferentzia nagusi bezala agertzen da, bai proiektu ezberdinen inguruan proposamenak egiterakoan, baita politika publikoen gauzapenerako berezko esparru gisa. Funtsean, Euskal Elkargoa Frantses Estatuaren aldetik Ipar Euskal Herriaren lehen ezagutza instituzionala da, euskal lurraldetasunaren nolabaiteko ezagutza politiko eta zuzena.

Euskal Elkargoak zabaltzen dituen perspektibak

A spaldiko urteetan Ipar Euskal Herriaren erakundetzea lortzeko garatu den mugimenduak eta eztabaidak jendartearen eragin zuzena izan dute. Gaur da eguna non jendartearen gehiengo zabalak bat egiten duen Ipar mendaldeko hiru herrialdeen erakundetzearen beharrarekin.

Lerroak mugitu dira, eta paradigma berri bat sortu da: euskal lurraldea erreferentzia nagusi bezala agertzen da, bai proiektu ezberdinen inguruan proposamenak egiterakoan, baita politika publikoen gauzapenerako berezko esparru gisa.

Funtsean, Euskal Elkargoa Frantses Estatuaren aldetik Ipar Euskal Herriaren lehen ezagutza instituzionala da, euskal lurraldetasunaren nolabaiteko ezagutza politiko eta zuzena.

Oroz gaintetik, Euskal Elkargoa erakitzeke lehenetsi den metodologiak, hots, hautetsien eta lekuko eragileen artean oinarritu den « ko-erakuntzak », sinergiak sortzeko balio izan du eta lekuan lekuko aktoreak aktibatitu ditu.

Bestalde, adierazgarria da sortu eta hilabete gutxira Euskal Elkargoak asumitu duen lidertza politikoa Ipar Euskal Herriko hainbat arazoren aitzinean (hegazti gripearen krisian esate baterako). Euskal gatazkaren ondorioen gainditzeko bidean eta batez armagabetze prozesuan Euskal Elkargoak eta bere lehendakariak izan duten jarrera asuareta arduratsuak indituzio sortu berriak Euskal Herri mailako erreferente politiko izateko duen potentziala agerian utzi du. Lehen aldia izan da Euskal Herriko hiru esparru administratiboetako ordezkariak batera agertu direla.

Haatik, Euskal Elkargoak baditu bere argi ilunak, aurrera begira bistatik galdu beharko ez direnak. Herri elkargoak berez kudeaketarako erakundeak baino ez dira, eta kasu eman be-

harko da kudeaketa ikuspegi soilak ez dezan gaina hartu.

Horrez gain, lehen erakundetzeak herri ekimenetan eragin dezakeen desaktibazioa gerta ez dadin indarrak egin beharko dira. Izan ere, Ipar Euskal Herriaren erakundetzearen sakontzeko aktore ezberdinen arteko elkarlana orain arte bezala garrantzitsua izango bada, herri mugimendua gihartzea erabakigarria izanen da.

Oraingoz eta 2020 bitartean Euskal Elkargoa eraikuntza fasean aurkitzen denez, erronka nagusia berez dagozkion eskuduntzak betetzea da, eta ondotik berriak jasotzeko baldintzak sortzea. Zentzu horretan, mugaz gaineko harremanen eskuduntza eskuratzea erronka garrantzitsua izanen da, hiru esparru administratiboaren artean lankidetzarako euskal esparrua eraikitzeke. Gaur egun, EAE eta Nafarroako instituzioen interlokutorea Akitania Berriako erakundea baita, eta ez dirudi oraingoz bederen eskuduntza Euskal Elkargoaren esku uztekotan dagoenik.

Erakunde berriak herriarekiko duen lotura demokratiko eskasa ere azpimarratzekoa da, herritarrek ez baitituzte ordezkariak zuzenean hautatzen. Herritarrekiko lotura politikoa indartzeko Euskal Elkargoaren ordezkariak zuzenean hauteskunde bidez hautatzea lortzea beste erronka nagusia izanen da.

Euskal Elkargoaren gobernantza arazoak ere begibistakoak dira. Berez herri txikiek pisu politiko handiagoa baldin badute ere, erakunde berriaren ibilmoldea Lapurdiko kostaldean zentralizatzeak kezka eragiten ditu barnekaldean. Egitura oso astuna izateaz gain ez da batere efizientea.

Aurrera begira, Euskal Elkargoa sujeta politiko nagusi bihurtuz eta bere erreferentzialtasun politikoa indartuz, etorkizun hurbilean erakunde eraginkorrago bat eskuratzeko posizio hobetoan aurkituko gara.


Azkenik, badirudi herri elkargoen eremua indartzen joango dela beste maila administratiboaren kaltetan. Euskal Elkargoaren eskuduntzak indartzearekin batean Frantses Estatuak hauteskunde zuzen eta espezifikoko antolatzea hobetsiko balu, automatikoki Lurralde Kolektibitate baten eszenatokian aurkituko ginatke.

Adierazgarria da sortu eta hilabete gutxira Euskal Elkargoak asumitu duen lidertza politikoa Ipar Euskal Herriko hainbat arazoren aitzinean.



Goiko argazkian 2016ko apirilaren 19an herritarren eta eragileen ekarpenak jasotzeko ospatutako Foroa. Arg: Garapen Kontseilua / Beheko argazkian 2017ko urtarrilaren 23an Jean-René Etxebaray Baionako auzapez zentrista Euskal Elkargoko lehendakari izendatua izan zen.





Euskal Elkargoaren antolaketa eta gobernantza

Sorrera prozesuan funtzionamenduari eta errepresentatibitateari loturiko hainbat korapilo askatu behar izan dira, hamar herri elkargotik bakarrera pasatzearen konplexutasunak baldintzatuz. Kostalde-barnekalde oreka, herri txikien ahotsa eta interesak zaintzea edo egitura berriaren legitimitate demokratikoa bermatzea izan dira garrantzitsuenak.

Euskal Elkargoak hiru organo erabakitzaile ditu :

Biltzarra : bertan 158 herrien ordezkariak biltzen dira (223 hautetsi). Erabaki garrantzitsuenak hartzen ditu (aurrekontua, eskuduntzen transferentzia, ...). Herri txikien ordezkariak dute gehiengo ordezkatzeko.

Kontseilu iraunkorra : Biltzarrak delegatzen dizkion gaiei buruz erabakitzen du. 69 hautetsi biltzen ditu, or-

dezkaritza demografikoaren arabera hautatuak.

Exekutiboa : Lehendakaria, 15 lehendakari orde eta beste hamar kidez osaturik da.

Biltzarraren eta eta Kontseilu iraunkorraren osaketan lurralde arteko oreka bermatu nahi izan dute. Exekutiboaren osaketan berriz sentsibilitate politiko ezberdinen presentzia bermatzeko indar bereziak egin dira.

Euskal Elkargoaren erakundetzean, beste bi erakunde arituko dira, soilik izaera kontsultatiboa izanzen duten arren : alde batetik Garapen Kontseilua, jendartearen ordezkari ezberdinak bilduko dituena ; eta bestetik Auzapezen Biltzarra, batez ere barnekaldeko herrien ikuskera ordezkatzeko helburu izanzen duena, kostalde/barnekalde oreka bermatzeko.

Euskal Elkargoaren eskuduntzak

Legeak aurreikusten du Euskal Elkargoak berez herriarenak diren eskuduntzak eskura ditzakeela. Egitura flexiblea eta ebolutiboa da, eta herrien eskuduntzaz haratago departamenduaren, eskualdearen eta Estatuaren hainbat eskuduntza delegazioz kudea ditzake.

Orain arte herrienak ziren hainbat eskuduntza legez derrigorrez Euskal Elkargoak eskuratuko ditu, oroz bat lurralde antolaketari eta garapenari lotuak direnak :

-ESPAZIOAREN KUDEAKETA, LURRALDE ANTOLAKETA.

-GARAPEN EKONOMIKOA (LABORANTZA, INDUSTRIA, TURISMOA, ...)

-ETXEBIZITZA

-INGURUMENA (ZABORREN BILKETA, UR ZIKINEN KUDEAKETA, URA, ...)

-GARRAIOA (GARRAIO URBANOAREN KUDEAKETA, MUGIKORTASUN POLITIKA, ...)

Hautuzkoa eskuduntzak

Arbitraiak egiten ari dira herriek zer atxikiko duten eta Euskal Elkargoak zer eskuratuko duen trenkatzeko.

Delegazioz kudeatuko diren eskuduntzak

Deigarrienak dira hizkuntza politika eta mugaz gaineko harremanak. Hizkuntza politikaren eskuduntzak Euskal Elkargoari balio erantsia ematen dio, nahiz eta frantses legedia eta Konstituzioa bera mugarri izaten jarraitzen duten.

- HIZKUNTZA POLITIKA

- MUGAZ GAINEKO HARREMANAK

Euskal Elkargoaren finantzamendua

Alde batetik Estatuaren dotazioak eskuratuko ditu, eta bestetik, fiskalitate propioa ere izanzen du sail mugatueta bada ere.

- ESTATUAREN DOTAZIOAK

- FISKALITATE PROPIOA SAIL MUGATUETAN

Erakunde ebolutiboa den heinean, bere bilakaera garatuko den indar-harremanaren eta negoziazio ahalmeneraren arabera izanzen da.



Bi mendeko ibilbide luzea

1789ko abuztuaren 4an, iraultzaren zirimolan, Frantziako Biltzar konstituzioegileak Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako instituzioak desegin zituenetik etengabekoa izan da hiru euskal probintzien ezagutza instituzionalaren aldeko aldarria. Jarraian Frantziako Biltzar nazional osatu berrian Iraultzaileek ezarri nahi zuten eredu politiko-administratibo berriaren ezatabaidan, euskal probintzietako ordezkariak behialako instituzioak berreskuratu ezean hiru herrialdeak barnebilduko lituzkeen departamendua sortzeko proposamena formulatu zuten.

1790: Alferrik ordea, 1790eko urtarrilaren 12an, euskal ordezkarien protestei muzin eginez, Biltzar nazionalak euskal probintziak Behe-Pirineoetako departamenduan urtzea hobetsi baizuen.

Geroztik, ugariak izan dira hiru euskal probintzien ezagutza instituzionala aldarrikatzeko ekimenak eta proposamenak.

1811: Deigarriena, inondik ere, 1811an Joseph-Dominique Garat iraultzaile lapurtarrak Napoleoni luzaturiko gogoeta da *[Espainiako jatorrizko herria, penintsula hartako iraultzak eta Espainiako eta Frantziako euskaldunak]*, zeinean mugaz bi aldeetako euskal probintziak barnebilduko lituzkeen eta Frantziako Inperioaren menpe egongo lituzatekeen « Fenizia berria » deituriko Estatuaren sorrera proposatzen duen, horretarako, hizkuntza eta kultura bakarrak ezaugarritzen dituen euskal nazioan bermatzen delarik.

1836an, Baionako komertzio ganbarak Frantziako erregeari Aturri izenpean eta Baiona hiriburu nagusi izanen zuen departamendu berri bat sortzeko proposamena luzatu zion.

1945eko irailan, gerla ondoko lehen biltzar konstituzioegilean Jean Etcheverry-Ainchart euskal legebiltzarkideak hiru herrialdeak bilduko lituzkeen autonomia estatutua proposatu zuen.

1963an ENBATA mugimendu abertzale sortu berriak, euskal departamendu baten sorrera aldarrikatu zuen, lehen urratsa gisa eskualde autonomo baterako bidean.

1975 / 1980 bitartean Baionako industria eta komertzio ganbarak alde batetik eta Ipar Euskal Herriko hainbat hautetsik bestetik, euskal departamendua aldarrikatzeko ekimenak sustatu zituzten, besteak beste elkarte bana sortuz.

Goian Joseph-Dominique Garati 1808an Adèle Romany-k egindako erretratua. / Jean Etcheverry-Ainchart 40ko hamarkadan eta 1996an.



1981eko Frantziako hauteskunde presidentzialen kariatara, PSF-eko hautagai zen François Mitterrand-ek bere programan euskal departamendua sortuko zuela iragarri zuen. Behin hauteskundeak irabazi ondoan, proposamena baztertu zuen.

1993an, Eraikitzen kolektiboak Iparretarrak erakundeak zabaldu-riko gogoetaren haritik Ipar Euskal Herriarentzako autonomia estatutuaren proiektua landu eta jendarteratu zuen.

1994an, Frantziako gobernuaren eskutik Garapen Kontseilua sortu zen, Ipar Euskal Herriko instituzio baten aldarrikapenari erantzuteko. 1995an berriz Hautetsien Kontseilua sortu zen. Bi egituren zeregina Ipar Euskal Herriaren lurralde antolaketa eta garapenari buruzko gogoetak eta proposamenak egitera mugatzen zen, bestelako ezagutza eta baliabiderik gabe.

1999ko urriaren 9an, 12000 lagunetik gora bildu ziren Baionako karriketan euskal departamendua aldarrikatzeko.

2002ko abenduaren 14an, herri mugimendu ezberdinetako ordezkariak BATERA plataforma sortu zuten. Plataformak ordurarte sakabanaturik aldarrikatzen ziren Laborantza Ganbara, Unibertsitatea, Euskararen ko-ofizialtasuna eta Euskal departamendua uztartuko ditu ekinbide bakarrean.

2010an Frantziako lurralde antolaketa erreforma berriak departamenduen desagertzea iragarri ondoan, BATERA plataformak Ipar Euskal Herriarentzat Lurralde Kolektibitatea aldarrikatu du.

2012an, Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak, Ipar Euskal Herriko hautetsien gehiengoak eta eragile sozial ezberdinek sostengaturik, « Estatutu bereziko Lurralde Elkargoa » proposamena landu eta ezagutzera eman zuen. Haatik, Frantziako gobernuak Ipar Euskal Herriko gehiengo sozial eta politikoaren sostengua zuen aldarrikapena baztertu zuen.

2014ko ekainan, Pirineo Atlantikoetako Prefetak Frantziako gobernuaren izenean « Estatutu bereziko Lurralde Elkargoa » ordez hiru aukera posible proposatu zituen : gauzak zeudenean uztea, hots Ipar Euskal Herria elkarte egiturapean antolatuz atxikitzea; Ipar Euskal Herriko 10 Herri elkargoak bilduko lituzkeen egitura federatibo bat sortzea; edo Herri Elkargo bakarra egituratzea. Eztabaida sakonen ondoren, Ipar Euskal Herriko hautetsi eta eragile sozialen gehiengoak azken proposamenaren alde lerrokatu ziren.



François Mitterrand 1980. urtean. Arg: Wikipedia / Garapen Kontseiluaren bilera bat. Arg: Garapen Kontseilua. / Lapurdi, behenafarroa eta Zuberoako herriak zeharkatu zuen karabana, elkargoren aldeko bozkari babesa emanez. Arg: Batera elkarte

ERREPORTAJEA

Menpekotasun energetikoa

Subiranotasun energetikoaz hitz egitean, energiaren plangintza publiko eta demokratikoaz hitz egiten ari gara. Hortaz, subiranotasun energetikoaz hitz egitea, eredu sozialaz hitz egitea da ezinbestean: nola erlazionatzen garen, zein den gure bizi eredua, zer kontsumitzen dugun, eta abar.

Euskal Herria energetikoki burujabea zen duela 150 urtera arte. Energia sortzeko biomasa, haizea, ura, eta abar lehengai gehiago erabiltzen ziren.

Baliabideak agortuz joan dira, gure eredu energetikoaren oinarri diren baliabide fosilak mugatuak direla ezin baita ahaztu.

Menpekotasun energetiko ia osoa dugu, eta energia berriztagarriak ehuneko oso gutxia baino ez dute betetzen.



Andoni Olariaga. Iratzar Fundazioko kidea.

Subiranotasun energetikoa

Gure bizitza eta ekonomia guztia energiaren bitartez mugitzen da. Energia lana egiteko magnitude fisiko bat izanik, lana egiteko materiaren ahalmena da, beroa sortzea, argia piztea edota mugimendua eragitea ahalbidetzen duena. Energia edonon aurki daiteke eta bizitzeko ezinbestekoa da.

Subiranotasun energetikoari buruz hitz egitea, aldiz, energia mota desberdinei buruz hitz egitea (energia berriztagarriak) baino konplexuagoa da. Energiaren gaineko erabakiak nortzuk hartzen dituzten, eta zein ondorio eta helbururekin egiten duten hartu behar da kontuan. Alegia, baliabide energetikoen kontrola

nork duen, ze eredu energetiko proposatzen duen, eta eredu horrek gizartean eta ingurumenean duen eragina aztertu behar da. Horrez gain, subiranotasun energetikoaz hitz egitean, energiaren plangintza publiko eta demokratikoaz hitz egiten ari gara. Kontuan hartu behar da eredu energetikoa eredu sozialak baldintzatua dagoela erabat. Hau da, eredu energetikoaren auzia ez da isolatua, eredu sozialari guztiz lotua dago. Izan ere, non kontsumitzen da energia gizartean? Eraikuntzan, industrian eta ehuneko handi batean garraioan. Hortaz, energia aurrezteko neurriez hitz egiten dugunean, eredu sozialaz hitz egitera behartua gaude (garraio

ereduaz, etxebizitza ereduaz, eta abar), azken horren menpekota dela ezin baitugu ahaztu. Eredu sozialak baldintzatuko du, hortaz, eredu energetikoa. Aipatzekoa da hileroko ordainagiritan ikusten dugun energia kontsumoa unitate familiar bakoitzeko urtean kontsumitutako energiaren heren bat baino ez dela. Heren horretan elektrizitatearen fakturan, energia termikoa (hotza, beroa) eta energia mekanikoa (garraioa) sartzen da. Ondorioz, urtean gastatzen dugun energiaren bi herena, gehiengoa, ez da faktura horietan ikusten. Non dago gastu hori? Hain zuzen, beste energia guztia, elikagaien (hauen prezioaren zati handi





Araban, gero eta norbanako eta instituzio gehiagok nuklearrik gabe bizitzeko hautua egin du, eta bide horretan, Iberdrola eta Endesarekin (Garofiaren jabeak direnak) apurtzeko konpromisoa hartzen ari du, energia berriztagarrien kooperatiba eta enpresen alde eginez.

bat energia da), ehun industria-
ren, elektronikaren, uraren, eta
abarren produkzioan, garraioan
eta mantenuan gastatzen dugu
energia hori.

Alegia, subiranotasun energe-
tikoaz hitz egitea, eredu sozialaz
hitz egitea da ezinbestean: nola
erlazionatzen garen, zein den
gure bizi eredu, zer kontsumit-
zen dugun, eta abar.

Frankismoaren eredu desarro- lista eta Aznarren gobernuaren energiaren pribatizazioa

Atzera begiratuz gero, Euskal
Herria energetikoki burujabea
zen duela 150 urtera arte. Ener-

gia sortzeko biomasa, haizea,
ura, eta abar lehengai gehiago
erabiltzen ziren. Industrializa-
zioarekin batera, ordea, goitik
behera aldatzen da energiaren
kudeaketa. Izan ere, industria-
lizazioaren ondoren, pixkanaka
energetikoki ia guztiz menpeko
bihurtzen joan baikara.

Aipagarria da Nafarroako kasua:
duela 50 urte inguru, zentral mi-
ni-hidraulikoak zituzten hamar-
naka enpresa publiko eta kole-
ktibo zeuden. Ondoren, eredu
desarrolista etorri zenean, fran-
kismoak bultzatuta, zentral hi-
drauliko txikiak (herri txikietan
zeudenak, udalek gestionatuak)

deuseztatu, eta urtegi handiak
eta zentral energetiko handiak
(batik bat ikatzaz elikatuak)
hobetsi ziren, eredu energetikoa
zentralizatzen eta esku gutxiren
menpe uzten zuten proiektuak
martxan jarri (HUNOSA hemen-
dik dator, adibidez).
Operazio horrek bi fase izan
zituen: lehen fasean, estatuko
enpresak sortu ziren diru pu-
blikoarekin; bigarren fasean,
enpresa horiek pribatizatu egin
ziren. Lehen fasean, hortaz,
Felipe Gonzalezen gobernu “so-
zialistak” 80 pribatizazio burutu
zituen (automozio, turismo, ele-
ktronika, itsas-garraioa...) diru-



**1997an, Aznar PPko espainiar estatuko presidente ohiaren lege
elektrikoarekin pribatizatu egin zen energiaren sektorea, Europatik
zeterren aginduari jarraituz, alegia, Europako prozesu neoliberalala
pausoz pauso jarraituz.**

kutxa publikoetan 13.200 miloi
euro utziz. Endesa, Iberdrola,
Unión Fenosa eta Gas Natural
bezalako enpresak oligopolio
egoeran utzi zituen, eta pribati-
zatzeko baldintza guztiak sortu.
1997an, Aznar PPko espainiar
estatuko presidente ohiaren lege
elektrikoarekin pribatizatu egin
zen sektore hau, Europatik zeto-
rren aginduari jarraituz, alegia,
Europako prozesu neoliberalala
pausoz pauso jarraituz. Horre-
la, herritarrenganako iruzur
handienetako bat burutu zen,
burugabekeria sektorial izuga-
rria aurrera eramanez. Horrela,
Espainiar estatuko eredu ener-

getikoa pribatizatu egin zen, eta
horren ondorioz, esku gutxiren
menpe geratu. Hortik aurrera,
enpresa pribatuek kudeatu dute
energia. 1997tik aurrera, hortaz,
energiaren liberalizazioa egon
da, eta energia bermatzea jada
ez da estatuaren eginkizuna
izango, enpresa gutxi batzuen
baizik. Beraz, esan bezala, ekoiz-
penaren ia osotasuna enpresa
gutxi batzuen esku geratu zen.
XXI. mendean, krisi energetikoa
2008ko krisi ekonomikoarekin
batera areagotu zen, batzuen
irritiz, petrolioaren prezioen
krisiak eraginda. Izan ere, ba-
liabideak agortuz joan dira, gure

eredu energetikoaren oinarri di-
ren baliabide fosilak mugatuak
direla ezin baita ahaztu. Kont-
sumitzen den energia kopuruak
gora egin du, eta energia eta eko-
nomiaren loturaren ondorioz,
Barne Produktu Gordinak gora
egitean energia kontsumoak ere
gora egin du.
Kontuan hartu behar da, hortaz,
energiaren eskumena Estatuent-
zat garrantzi berebizikoa dela.
Hego Euskal Herrian, esaterako,
energiaren kontu tronkalak
oso lotuak dauzka Espainiar
estatuak. Eta beldur gabe esan
daiteke, EAE zein Nafarroako au-
tonomiek Espainiar estatuaren

barruan sekula lortuko ez duten eskumen bat dela energiarena.

EAE eta Nafarroako egoera energetikoa, menpekotasuna eta krisia

Baliabide fosilen izaera mugatuaz jabetzen hasi garen arte, gure (in)kontziente kolektiboan energiak ez du izan garrantzia zentrala. Baina azken urteetan, jendartearen eta mugimendu eraldatzaileen ardatzetako bat bilakatzen ari da. Izan ere, egoera oso gordina da. Euskal Autonomi Erkidegoak eta Nafarroak izugarritzko menpekotasun energetikoa daukate, Frankismo garaian baino menpekotasun handiagoa. Izan ere, Katalunia-rekin batera, Europar menpekotasun energetiko handienetakoa dugun herrialdea gara. Euskal Herriko biztanleok, men-debaldeko jendarte industrial garatu moduan, per capita kontsumo altua dugu. Oso kontutan hartzekoa da gure ekonomiaren oinarrietako bat den industriak (BPGaren ia %25) energia kontsumo maila altuak dituela, baina energia berriztagarrien ekoizpen eta kontsumo maila oso txikia dela. Bestalde, ekoizpen eredu oso zentralizatua dugu, oligopolioa, hain zuzen.

Egoera energetikoari dagokionez, hortaz, gero eta zailagoa da testuingurua. Menpekotasun energetiko ia osoa dugu, eta energia berriztagarriak ehuneko oso gutxia baino ez dute betetzen. Arabaren kasuari dagokionean, esaterako, kontuan hartu behar da Gasteizek kontsumitzen duela Arabaren %80a, industrian eta mugikortasunean batik bat. Aipagarria da, zentzu horretan, EH Bilduk mugikortasun elektrikoa bultzatu duela (esaterako, Arabatran proiektua eta autobus elektriko azkarra (BRT), publikoa eta kolektiboa).

Menpekotasunaren aurrean, Arabako eta Nafarroako ekimenak Energiaren alorrean, herriaren (Arabako herriaren) garaipentzat hartu daiteke duela gutxi emandako Garoñaren itxiera (irekierarako lizentzia ez berritzea, sensu stricto). Azpimarratu behar da, ordea, Arabako gizartearen ez dela soilik Garoñaren eta Franckingaren aurkako mobilizazio hutsean aritu. Izan ere, aspaldi ari da alternatiba bideragarriak martxan jartzen eta hezurmatitzen. Araban, gero eta norbanako eta instituzio gehiagok nuklearrik gabe bizitzeko hautua egin du, eta bide horretan, Iberdrola eta Endesarekin (Garoñaren jabeak direnak) apurtzeko konpromisoa hartzen ari du, energia berriztagarriekin konprometituak dauden kooperatiba eta enpresen alde eginez. Ekimen horien artean, azpimarratzekoa da Asparrenakoa. Auditoria esperimentalak egin eta proiektu europarretan elkarlanean ari dira duela urte batzuetatik hona. Asparrenako udalak (10 herriz osatua eta 1600 biztanle ingururekin) Araiko San Pedroko zentral hidroelektrikoa %100ean kudeatzen du eta horren etekinekin district heating biomasa (herri berogailua) proiektua martxan jarri du, energia berriztagarrien aldeko apustua eginez. Biomasa proiektu horrekin hiru eraikin munizipalei (eskola, kultur etxea eta ambulatorioa) beroa igortzen die. Horrekin, aurrezpena bultzatu eta aurretik egon den energia xahuketari balazta jarri nahi izan zaio. Horrez gain, bioekonomia forestala ere martxan du, baso publikoen kudeaketa jasagarriarekin. Ondorioz, energia lortzeko prozedura jasagarri eta berriztagarriak hobesten ari ditu proiektu horrek. Zuiako kuadrillan bide bertsutik jo dute. Iberdrolarekin zeukan

kontratua bertan behera utzi duen Arabako lehen herria izanik, hornitze elektrikoa energia berriztagarria hobesten duen enpresa batekin lotu dute. Horrela, Europar Batasunako legediak hartutako erabakia babesten dute, kontratazio publikoak helburu sozialak lortzeko eta ingurumena babesteko lanabesak izan behar baitira. Alegia, subiranotasun energetikoaren bidean eredu jasagarria bultzatzea da erabaki horren helburua. Horrela, 2016an %10eko aurrezpen ekonomikoa lortu zuen. Azpimarratzekoa da, Zalduondon ere aldaketa hau egin dela, eta beste herri batzuetan tramiteak hasiak direla energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko. Bestalde, Nafarroan, hiru egunetik behin energia berriztatzaileekin hornitzen da energia komunitate osoan. Eta hala ere, eboluzioa kezagarria izan da. Izan ere, ezin da energia berriztagarriak eta subiranotasun energetikoa parekatu. Duela hamarkadak Nafarroako Komunitate Foralean bi enpresa publiko funtsezko zeuden, bata energia berriztatzaileen kudeatzailea zena, eta bestea finantzariora: EHN (Energía Hidroeléctrica de Navarra, maila europarrean punta-puntakoa) eta CAN (Caja de Ahorros de Navarra). EHN orain pribatizatua dagoena, Acciona izenarekin; CAN ere pribatizatu egin da, ezaguna denez. Egoera, beraz, ez da xamurra Nafarroan ere •

Asparrenako udalak (10 herriz osatua eta 1600 biztanle ingururekin) Araiko San Pedroko zentral hidroelektrikoa %100ean kudeatzen du eta horren etekinekin district heating biomasa (herri berogailua) proiektua martxan jarri du, energia berriztagarrien aldeko apustua eginez.

Zailtasunak zailtasun, eta menpekotasun izugarri horren aurrean, Euskal Herrian berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela jabetu diren sektoreak gero eta gehiago dira, eta hainbat lekutan ekimen politikak ikusten ari gara.

Gure apustua, subiranotasun energetikoa

Zailtasunak zailtasun, eta menpekotasun izugarri horren aurrean, Euskal Herrian berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela jabetu diren sektoreak gero eta gehiago dira, eta hainbat lekutan ekimen politikak ikusten ari gara.

Izan ere, baliabide edo erregai fosil eta nuklearrak mugatuak dira eta bukatu egingo direla ez dago zalantzarik. Galdera, hortaz, ez da ze energia erabili behar dugun: ez dago zalantzarik berriztagarriak izan beharko direla etorkizunean. Galdera bestelakoa da: ze eredu sozial eta energetiko nahi dugu? Etorkizuna berriztagarria izango da, eta hori ondo kudeatzeko, energiaren demokratizazioa eman beharko da ezinbestean, herritarren esku utziz erabakiak, ardura eta gaitasuna.

Bitartean, Euskal Herriak estaturik ez duela kontuan hartuz, aferak berdina izaten jarraituko du: erabakiak maila

oso lokalean maila oso lokalean baino ezingo dira hartu, udaletan, bailaratan eta kooperatiba energetikoen eskutik. Maila handiagoan eragiteko ahalmena urria izaten jarraituko dugu. Bitartean, gure hautuak argia izaten jarraituko du:

1) Energiari dagozkion kontuak ahalik eta neurri handiengan publikatzeko saiakera, Iruñeko udalari begiratzen badiogu, esaterako, energia agentzia publikoa sortu baitu.

2) Aramaion publikoa da kudeaketa, esaterako, eta Tolosan ere.

3) Ekimenak bultzatzen dira maila lokalean: hornidura elektrikoa energia berriztagarrien bitartez egiten da.

Zein da ondorioa? Subiranotasun energetikoa ezinbestekoa dugu. Eta horretarako, estatu propioak ezinbesteko lanabesak eman diezaguke, Espainiar eta Frantziar estatuen menpekotasun energetikotik askatu eta eredu sozial eta energetiko bideragarri, jasagarria eta demokratikoa martxan jarri ahal izateko.

MAURICIO OLITE

Miembro de la asociación Zona media por el tren, Erdialdea trenaren alde.

NAFARROA POR EL TREN SOCIAL

En 2013, en la zona media de Nafarroa surgió un colectivo a favor del tren social. Entrevistamos en Noviembre (2017) a Mauricio Olite, miembro de este colectivo, para que nos explique que es Zona Media por el Tren – Erdialdea Trenaren alde y nos traslade su visión sobre el proyecto del TAV-AHT. Desde entonces han pasado muchas cosas, los últimos movimientos del Ministro de Fomento con el TAV... De todas formas, es una entrevista que no ha perdido actualidad.

“La borrachera española de TAV, con el dinero de todos, es una locura que pasará a la historia de los despropósitos.”

ERRIA

¿Qué es Zona Media por el Tren – Erdialdea Trenaren alde? ¿Cómo surge y con qué objetivo?

Somos un colectivo ciudadano que empezamos a movernos en defensa de la estación de ferrocarril de Tafalla en julio del 2013. Un grupo diverso y con experiencia, es decir, con bastantes años encima, y que nos une el objetivo de no permitir que se pierda el tren en la Zona Media de Navarra. Tenemos acceso directo al tren desde 1865, así que hemos conocido toda su evolución, y es precisamente ahora en el 2017 cuando están empeñados en construir un TAV que nos deja aislados, sin acceso directo a

los trenes de largo recorrido, Barcelona, Madrid, A Coruña... y con todas las afecciones negativas en nuestros pueblos.

¿Qué diferencias y que similitudes hay entre el movimiento histórico anti-TAV y este movimiento?

Algunos de nosotros participábamos de sus objetivos y movilizaciones, pero en mi opinión a la mayoría de la gente no le llegaba el mensaje, y no percibía el TAV como una amenaza, no era consciente de lo que suponía para Tafalla y la Zona Media de

La Asociación Zona Media por el Tren / Erdi Aldea Trenaren alde presentó un informe el 11 de Enero de 2018 en Tafalla. Una de las conclusiones del informe es que los servicios de la estación están desatendidos cuando hay más trenes en circulación, es decir, un 53,8% de trenes circula con la estación cerrada. Además, los servicios básicos como los aseos,

cafetería, etc., no existen en muchos casos, ya que la estación está cerrada cuando hay mayor afluencia de personas y trenes. Por lo tanto, estos datos dan la razón a la denuncia que Zona Media por el Tren hizo en diciembre de 2016 sobre la reducción de la plantilla y servicios de RENFE/ADIF. El estudio muestra, entre otras cosas, una valoración positiva de los usuarios

con respecto a los Alvias regionales y su deseo de mejorar la actual infraestructura. La conclusión de la asociación es que la estación de Tafalla da un servicio imprescindible a la Zona Media de Navarra. Por último, la asociación emite una petición firmada por 355 usuarios, en el muestreo realizado en la propia estación, pidiendo que ésta sea atendida de inmediato.



Navarra. Alguno de nosotros, en los círculos políticos que nos movíamos, planteamos sin éxito, cambiar de estrategia. Visto lo visto, un grupo de vecinos y vecinas de Tafalla nos metimos en este lío por nuestra cuenta. Un año después creamos la Asociación legal con participación de personas de 27 pueblos.

Hasta ahora ¿Por qué creéis que tuvo una acogida transversal en los pueblos de la zona media?

Nos propusimos informarnos e informar a la gente de los efectos y consecuencias más inmediatas y reales que afectaban a todo el mundo. Algo tan

evidente como que, si te hacen una variante ferroviaria que pasa de largo y fuera de tu estación, te quedas sin tren, la mayoría ni lo había percibido ni se lo creía. Al TAV se le califica como progreso, el progreso es bueno y los que se oponen son “los de siempre, los anti todo” en general ese argumento dado no se cuestionaba.

De igual manera, RENFE y Adif están endeudados hasta las orejas por sus inversiones en el TAV, el deterioro de la red convencional es un hecho, el cierre de la mayoría de estaciones una realidad y el deterioro por reducción de plantilla en la de

“Este nuevo corredor que inició UPN – PSOE –PP y que ahora apoya el actual Gobierno de Navarra, con Manu Ayerdi como principal impulsor, es un desastre para la Zona Media, nos deja fuera del acceso al tren de largo recorrido y nos destroza el territorio creando una barrera inadmisibile de sur a norte de Navarra”

“Somos un colectivo ciudadano que empezamos a movernos en defensa de la estación de ferrocarril de Tafalla en julio del 2013”

Tafalla una más. Cuando logramos informar eficazmente, ese fue, y sigue siendo, el punto de unión.

Los principios y valores que se atribuyen al proyecto del Tren de Alta Velocidad son el progreso y la velocidad. En 25 años tenemos una de las redes más extensas de alta velocidad de Europa. Pero desde hace 30 años que se puso en marcha el TAV, las tecnologías han cambiado y el debate en Europa parece estar en otros ejes, donde el modelo de tren es de media velocidad, con paradas en ciudades intermedias combinando con cercanías. ¿Estás de acuerdo?

Por supuesto. Hicimos una conferencia en Tafalla con Víctor Pachon (activista de Iparralde) y daba datos muy clarificadores. Nos decía que el debate TAV estaba superado, que grandes medios de comunicación europeos, apuntaban como conclusiones un modelo de tren de velocidades medias, en torno a 200 km/h, y con paradas en ciudades intermedias. Y eso sí nos cuadra. La borrachera española de TAV, con el dinero de todos, es una locura que pasará a la historia de los despropósitos. A futuro, no es la alta velocidad lo que se impone en el transporte terrestre, ni siquiera en el aéreo, los que tenemos años nos acordamos el supersónico avión Concorde, que reducía el 50% de los tiempos de vuelo y como fracasó. Ahora se ha impuesto el Airbus donde prima la gran capacidad sobre la velocidad. También hace muchos años que existe el tren bala en Japón (600 km/h.) pero no ha tenido réplica.

En la Web del gobierno de Navarra se puede ver que contempla dos alternativas: mejorar el actual trazado, o hacer un corredor nuevo. Y apuesta por la segunda. ¿En qué consisten y qué lectura hacéis de ambas?

Sí, y apuesta por esa segunda con el principal argumento de que la competencia es de Madrid y la inversión la hace el Estado. No desarrolla ni se plantea la defensa de otra alternativa que interese más a Navarra.

Este nuevo corredor que inició UPN – PSOE –PP y que ahora apoya el actual Gobierno de Navarra, con Manu Ayerdi como principal impulsor, es un desastre para la Zona Media, nos deja fuera del acceso al tren de largo recorrido y nos destroza el territorio creando una barrera inadmisibile de sur a norte de Navarra. Además de otras consideraciones económicas y sociales.

¿Qué alternativa o modelo defiende la Zona media por el Tren para Nafarroa? ¿Es compatible con los estándares europeos?

Nosotros siempre hemos defendido invertir en la actual vía implementando un tercer raíl para lograr el ancho internacional, y además mejorar el trazado en las curvas y tramos que sea necesario para lograr más capacidad y seguridad. Esto es compatible con la construcción de una segunda vía paralela a la actual y por el mismo trazado. Y así lo ha planteado Adif en más de una ocasión, a ésta es lo que el gobierno de Navarra llama ahora alternativa 1 (mejorar el actual trazado). Por supuesto que puede cumplir todos los estándares europeos de capacidad, modernidad y seguridad. Además se puede construir por fases y tiene mucho menos coste económico y medioambiental.

Zona media por el tren y Sustrai erakundea pidieron la creación de una ponencia parlamentaria para estudiar el caso. ¿Dónde ha quedado?

Sí, también otros colectivos que luchan contra el TAV. Fue hace casi 2 años, la pedimos para propiciar un debate en el Parlamento a nivel técnico, político y social sobre el ferrocarril que Navarra



PERFIL: MAURICIO OLITE

Nace en Campanas-Arrizabalaga el 9 de Abril de 1950. A primeros de los 70 toma parte en la fundación de las primeras Comisiones Obreras, que más tarde serían el Sindicato Unitario, Colectivo Unitario y LAB. En el 79 sale elegido parlamentario foral, y forma el grupo AMAIUR, etapa constituyente en Navarra, frustrada por la reforma. En el 83 es el primer concejal de HB en Tafalla. Desde el 87 al 95 de nuevo parlamentario, asume responsabilidades como portavoz de HB en Navarra, coordinador del grupo parlamentario, miembro de la Mesa Nacional, etc. En el 95 deja las responsabilidades políticas, y tras un año de reciclaje profesional se centra en las energías renovables promoviendo con otras personas una pequeña empresa de energía solar que en pocos años lidera el sector en el Estado, conocida y reconocida a nivel internacional por su creación y desarrollo de las llamadas “Huertas solares”. Además de los conocimientos específicos sobre energía solar, refuerza sus conocimientos sobre marketing y gestión comercial y asume, en los últimos años, la dirección de esa área a nivel de Europa y América latina, hasta que sale de la empresa en Abril de 2011. Ahora esta jubilado y activo, sobre todo en el movimiento social y medioambiental.

necesita y después si se diera el caso una consulta ciudadana. El cuatripartito se puso de acuerdo y se creó una Ponencia más genérica, sobre Movilidad, pero no ha funcionado. Sólo se ha reunido una vez y no han dado cabida a técnicos, y colectivos sociales, ni a empresas o expertos. Un fraude a la sociedad.

Para implementar el proyecto, desde Madrid se ha puesto en marcha la expropiación forzosa de los terrenos. ¿Cómo se recibe esto por los propietarios y Ayuntamientos afectados?

Con impotencia e indefensión. Yo puedo hablar por lo que conozco que es el análisis y reacción que han tenido varios los Ayuntamientos.

renaren oroimen ekimen batzuen inguruan gertatutakoa oso argigarria da: ariketa nostalgiko dogmatikoez ez dute ezertarako balio. Historia sakonki aldatu zuen gertaera baten oroimena sektarismo antzueren ikur bihurtu nahi izateak zer pentsa eskaintzen digu: zaila da biderik onena aurkitzea, baina porrotaren bidea non dagoen ikustea lagungarria da, bidegurutzean aukera hori baztertzeko.

Ezkerraren sektore batzuk melankoliar edo posturo estetiko sasi-iraultzaileetan gelditu diren bitartean, guk argi ikusi dugu: urteurren hauek baliagarriak izan daitezke neoliberalismo zitalak ezarri nahi digun alternatiba ezaren logikari aurre egiteko.

Gure garaiko iraultza eta matxinadak

Ez gaude, zorionez, Berlingo Haresiaren erorketa ikur bilakatu zuten kapitalismoaren garaipen errelatoaren une gorenean. Historiaren bukaeraren fantasia leherrarazi du errealtateak orduan, erresistentzia eta alternatibak eraikitze saioak biderkatu direlarik. Neoliberalizazioak erresistentzia indartsuak aurkitu ditu eta mundu multipolarra gorpuzten ari da, AEBen nagusitasuna kolokan jarritz. Baina, kasu, David eta Goliathen arteko lehia da hau eta neoliberalismoaren indarrak eragile alternatiboak baino askoz ere boteretsuagoak dira. Beste zibilizazio baterako urratsak ematea oso zaila da gure garaiko munduan, baina inoiz baino beharrezkoagoa da alternatiba sistemikoaren ikuspegia berritzea, zerumugarik gabe, ipar-orratzik gabe ez baitago inora joaterik.

Borroka eta emantzipazioaren ideien globalizazioa ere gertatzen ari da gure garaian, esperientziak,

saioak eta egitasmoak bazter batetik bestera doazelarik, konexio berriak ahalbidetuz. Haserrea globala bilakatzen ari da, eta erreferentzia unibertsalak tokian tokiko borroka indartzeko baliagarriak dira, isolamendua eta inpotentzia gainditzeko lagungarriak direlako. Planeta bera arriskuan jarri duen anabasa neoliberalari ezetz esatea baino gehiago behar duela ondorioztatu du gero eta jende gehiagok munduko bazter guztietan, baina borroka eta eragileen artikulazioak ez dira errazak eta nonahi atzematen dira indibidualizazioaren eta loturen prekarizazioaren ondorioak, baita herri mugimenduen eta ezkerreko eragileen esparruan ere.

1917ko iraultzak historia erdibitu zuen, aipatu dugunez, baina ez gaude jada garai historiko hartan, beste batean baizik. Ez ditugu egungo Neguko Jauregiak hartuko 1917ko eskemak kopiatuz. Gure garaietako erresistentzietan alternatiben irudikapena gehitu behar zaie, beste zibilizazio baterako trantsizioaren ikuspegia, hots, eta horretarako sozialismoaren zerumugaren gaurkotzea eta eraldaketa estrategien egokitzeari ezinbestekoak dira. XXI. mendeko erantzunak eman behar dizkiegu XXI. mendeko erronkei.

Ezkerraren eta mugimendu askatzaileen egokitzeari eta autokritikaren beharra eta gure garaiko erronkei gure garaiko formulen bidez erantzuteko premiari erantzun behar diegu, argi izanik ariketa hau ezin dela joera defentsiboz egin, iraultza eta sozialismoaren bilan neoliberalaren esparru barnetik baizik, emantzipazioaren logikatik, hots.

Logika honek akatsak hartzen ditu aintzat eta akatsen arrazoiak bilatzera bultzatzen gaitu,

BORROKA ETA ERAGILEEN ARTIKULAZIOAK EZ DIRA ERRAZAK ETA NONAHI ATZEMATEN DIRA INDIBIDUALIZAZIO ETA LOTUREN PREKARIZAZIOAREN ONDORIOAK, BAITA HERRI MUGIMENDUETAN ETA EZKERRAREN ERAGILEEN ESPARRUAN ERE.

DEMOKRAZIA, BURUJABETZA ETA NEOLIBERALIZAZIOAREN GAINDIPENA LOTURIK AGERTZEN DIRA ABIAN DAUDEN ERALDAKETA PROZESUETAN, BOLIBIATIK KURDISTANERA. IRAULTZA DEMOKRATIKOAK DIRA, FORMA ANITZEKOAK, DESZENTRALIZATUAK, TEORIZAZIO ETA ESTRATEGIA BERRIAK ASMATZEN ARI DIRENAK.

2017



Neska bat botokutxa eramaten jende artean 2017ko urriaren 1ean Katalunian. XXI. mende hasieran Latinoamerikan ezkerreko gobernuen olatua hasi zen, burujabetza berreskuratuz aro neoliberal luzeari aurre eginez. Iraultza demokratiko hauen ezaugarri nagusienetakoa izan da, talde gerrilari ohiak izanak hauteskunde bidez iritsi direla gobernura, babes zabalarekin. Europan Kataluniakoa gure iraultza demokratikoaren paradigma garbiena, herri mobilizazio masiboarekin eta botoaren bidez burujabetza gehiago [Errepublikari propio bat] eskuratu nahi dutelako. Arg: Getty Images

errepika ez daitezke, baina, une berean, lortutakoaren garrantzia azpimarratzera garamatza. Areago, lortutakoaren aldarrikapenetik abiatzen da, emantzipazioaren egitasmoa aurreko belaunaldien borrokan oinarritzen da, ez era mekanikoan errepikatzeke, jakina, hobetzeko baizik, baina bilan horren oinarri eraldatzaileak baliatuz, derrotismoak baztertu. Gaur egungo mundua ez baita posible den bakarra, historia ez baita bukatu.

Izan ere, horixe erakusten digute iraganeko borroka eta pentsamendu ekarpenek, eta era berezian 1917ko iraultzak. Aldaketa egingarria da, historia ez baitago agorturik, etorkizunaren gidioa ez baitago idatzita. Mundua erroetatik aldatzea badago, gertatu da, gertatzen ari da, eragin mugatua bada ere (Hego Ame-

riketako aldaketa prozesuak, Kurdistan...)

Hau non eta XXI. mendeko Europan aldarrikatzea oso beharrezkoa delakoan gaude, aipatu dugunez kapitalaren logika bazter guztietara zabaldu delako, askatasuna, aldaketa, aurrerapena eta iraultza bera edukiz hustu eta kontsumo aukeren esparruan kokatuz.



ETAren armagabete zibila 2017ko apirilaren 8an Baionan. Arg: Bake Artisauak

Autokritika zorrotzaren beldurrik gabe, iraganetik ikasten jakin behar dugu. Eraldaketa ezin da goitik behera ezarri, alderdi batek ezin du herria ordezkatu; estatua funtsezko eragile eta borroka esparrua da, baina ezin du jendartearen taupada menperatu; feminismoa edozein eraldaketaren oinarria da, derrigorrez; eta planetaren biziraupena bermatu beharra dago, hondamendira baitoa. Badugu zer pentsa eta Leninek berak idatzi zuenez, baztertu berritua hasi beharra dago, bidea ongi egin ahal izateko.

Iraultza eta sozialismoaren egitasmo historikoa berritu behar dira derrigorrez. Ez dakigu zein izanen den etorkizuneari aspaldiko erreferentzia hauek hartuko dituzten formak. Ezinezkoa da aurretik esatea nolakoak izanen diren etorkizunaren borroka

emantzipatzaileak. Gure herriaren burujabetzaren aldeko borrokaren ibilbidean ikasi dugu noraino diren kaltegarriak dogmatismo eta ortodoxia itxiak. Burges txiki gisa hartu gaituzte, gurea askapen borroka denik ukatuz, benetako iraultza, marxismoa eta sozialismoaren ize-nean. Argi dago hor ez dugula bide edota formula berrietarako inspiraziorik aurkituko.

Kapitalak, bloke sozialistaren kontrapuntua gaindituta, demokrazia liberala bera sakrifikaizteko aukera jarri du mahaiaren gainean. Askatasun demokratikoak herriaren konkistak dira, baina liberalismoak ikur bilakatu zituen, eta bandera nagusi gisa ezaugarritu zituen “autoritarismo” komunistaren aurrean. Klaseen arteko borrokan kokatuta zegoen demokrazia eredu burgesa, langileria eta herri sektoreen boterea galarazteko. Parte hartze aukerak eta hainbat eskubide eta onura eskaintzen zizkien, behartuta eta iraultzaren arriskua oztopatzeko, baina kontra-ofentsibara pasa ziren aspaldi eliteak eta gaur egun oso bestelakoa da egoera.

Demokrazia, burujabetza eta neoliberalizazioaren gainditzea loturik agertzen dira abian dauden eraldaketa prozesuetan, Boliviatik Kurdistanera. Iraultza demokratikoak dira, forma anitzekoak, deszentralizatuak, teorizazio eta estrategia berriak asmatzen ari direnak. Batzuetan oztopo eta zailtasunetan korapilatzen dira, aurrera ezin eginaz, baina beste batzuetan urrats erraldoiak emanaz eta erakutsiz alternatibaren eraikuntza ez dela biharko dema intelektual hutsa.

Feminismoa, parte hartzea eta gure planetarekiko atxikimendua dira iraultza berrien oinarriak.

Komunismoaren zerumuga gaurkotzen ari dira hamaika mugimendu eta eragile munduko bazter guzietan, hamaika borroka elkartuz. Gure garaiko matxinada eta iraultzak dira, inperfektuak, mugatuak, kontraesanez beteak, garai guztietako iraultza eta matxinada guziak bezala.

Eraldaketa aukerarik ez dagoela aldarrikatzen duen arrazionaltasun neoliberalak, modu esanguratsuan, pentsamendu baikorra hauspotzen du, zeinaren arabera edozer lortzen ahal da, sakonki desiratu eta lortzeko indar oroz jardunez gero. Amerikar mirakulua unibertsalizatu dute, edozein pertsona aberats bilaka daitekeela sinetsaraziz eta, ondorioz, pobrezia edo zapalkuntzaren arduradun bilakatu jendartearen goialdean ez dagoena. Desberdintasunak eta menpekotasunak ezkututzen ditu diskurtso kontraesankor baina emankor horrek, herritarrak nahiz herri zapalduak bere egoeraren erantzule nagusi bihurtuz.

Gustuko ez dugun arren, diskurtso horren menpe bizi gara, hegemonikoa baita. Eta iraultzaren auzia kokapen honetan dago trabaturik, zapuzketa eta boluntarismoaren artean eskuak loturik. Askatu beharra dago, alta, bide berriak irekiz eta gogo baldintza materialak eraldatzeko estrategiekin uztartuz. Bestela esanik, iraultza perfektuaren mitoa ezin du aldaketa urrats mugatuagoen mesprezua ekarri, eta halaber, urrats horien defentsak ezin du eraldaketa sistemikoaren zerumuga lainotu, ikuspegi estrategikoaren galerak iniziatiba oro kapitalaren irenste gaitasun erraldoiaren menpe kokatzen baitu.

Neoliberalismoaren hegemonia eta ezkeraren erreferentzia al-

IRULTZA PERFETUAREN MITOAK EZIN DU ALDAKETA URRATS MUGATUAGOEN MESPRESUA EKARRI, ETA HALABER, URRATS HORIEN DEFENTSAK EZIN DU ERALDAKETA SISTEMIKOAREN ZERUMUGA LAINOTU.

KATALUNIAN PIZTUTAKO MATXINADA DEMOKRATIKO-SOBERANISTA DUGU GURE GARAICO FORMULA INTERESGARRIENETAKOA. NEOLIBERALISMOAK ZIGORTUTAKO LURRALDE HORRETAN, DESDEMOKRATIZAZIO ZENTRALIZATZAILE ESPAINIARRAK PROTESTA ZIKLO INDARTSUA EKARRI DU.

EZKER ABERTZALEA EZ ZEN SORTU AZALEKO ERREFORMAK BULTZATZEKO. GURE MUGIMENDUAREN FUNTSA JOKO ARAUEN ERALDAKETA ERROTIKOA IZAN DA ETA GAUR EGUN ERE HAUTU HORI BAIEZTATU BEHARRA DAGO.



Emakume bat Bogotan 2016ko ekainaren 20an, FARC-EPren behin betiko su-eten iragarpena jarraitzen kaleko pantaila baten bidez. ETAREN armagabetzeak zein FARC-EP eta Kolonbiako Gobernuak Habanan sinatutako akordioek borroka ziklo baten amaiera ez ezik, eredu baten amaiera ere sinbolizatu zuten. Mundu osoan zehar XX. mendean sortutako gerrilek borroka armatua utzi eta bide politikoen bidez helburu berdinen alde jarraitzeko transformazio prozesua gauzatu dute. Tartean dira esate baterako, ETA, FARC-EP eta IRA. Arg: Agencia Prensa Rural

ternatiboen ahulezia aintzat hartuta, oso inportantea da aldaketak eragiteko aukerak bilatzea, sistemaren lubakiak kokatuz eta zulo handiak irekitzeko baliatuz. Hori ez da lortuko iraultzaren aldarrikapen ozen bezain hutsen bidez, estrategia emankorrei esker baizik. Alferrikakoa izan beharko litzateke, izan ere, baina inoiz ez dago soberan oroitzea iraultzaileen erronka iraultza egitea dela, ez iraultzaz hitz egitea.

Katalunian piztutako matxinada demokratiko-soberanista dugu gure garaiko formula interesgarrienetakoa, esaterako. Neoliberalismoak zigortutako lurralde horretan, desdemokratizazio zentralizatzaile espainiarrak protesta ziklo indartsua ekarri du eta, modu esanguratsuan “marxista” eta “komunista” ortodoxo eta dogmatikoen errefusa lortu du matxinada horrek, benetako iraultza ez dela, burgesiak zuzentzen duela eta antzeko erge-lkeriak aipatuz.

Kataluniarena ez da iraultza sozialista, jakina. Errusiakoa eta Kubakoa ere ez ziren, bilakatu ziren arte. Ez dirudi erreza denik halakorik gertatzea Katalunian, baina kontua ez da hori, gure garaiko egoeran estrategia berriak garatzeko aukera baizik, eta maila horretan Kataluniak desdemokratizazioari era eraginkorrean aurre egin eta bestelako zerumugak irudikatze bidea erakutsi du.

Euskal borroka ziklo berrirako gogoeta eta ikasgaiak

Ireki nahi dugun mobilizazio eta borroka ziklo berrirako erreferentzia baliagarri gisa ezaugarritu nahi izan ditugu urteurren hauek, beraz.

Euskal Herrian ziklo luze bati eman nahi diogu bukaera, beste bat hasteko. Batzuek, era esanguratsuan, ziklo horri ETAREN derrotaren garaia deitu nahi diote, eta ukatzen dute, alta, garai berrian

gaudenik. Izan ere, haiantzako ez dago zerumuga alternatiborik.

Guk berriz, Zohardia izena duen txostena onartu dugu gure azken barne eztabaidan. Zerumugaren sinonimoa den zohardiaren aipamenak espazio eta denbora inposatutakoak hautsi eta geurek eraikitze borondatea ekartzen digu gogora.

Ezker abertzalea ez zen sortu azaleko erreformak bultzatzeko. Gure mugimenduaren funtza joko arauen eraldaketa errotikoa izan da eta gaur egun ere hautu hori baieztatu beharra dago, une bakoitzean taupada eraldatzailer horrek bere formulak hartu behar baditu ere. Iraultza eta borrokaren oroimenak borroka berrietarako indarra ematen digu eta ikuspegi estrategikoa errotzen du, nondik gatozen eta nora goazen uztartuz.

Gure garaiko matxinada eta iraultza inperfektuak aipatu ditugu lehen. Halako bat egin nahi dugu gure herrian. Marxek egin zuen Kapitalaren deskribapen kritikoa eta egitasmo sozialistaren aurrerapenean inspiratuta, 1917ko boltxebikeen lorpen erraldoiak gogoan, gure mugimenduaren lehen urteetan hain eraginkorra izan zen Guevararen eredu aintzat hartuta, baina batez ere geure iraganeko borroketatik ikasiz eta geure bidea eginaz, gure garaietako borrokek gure erreferentzia nagusiak direlarik. Gure garaiko seme alabak gara eta izan nahi dugu, horixe baita biharko garaia sortzaileak izateko derrigorrezko baldintza. Gora Herria! Gora Iraultza!

1917
2017

Zientzia fikzioaren alde, utopia berriak lantzeko ordua

Beñat Irasuegi



Garai ilunak bizi ditugu, utopia eta zientzia fikzioa lehen lehen gaiak ez diren denbora. Gaur egun nahikoa izaten da posible denaren markotik ateratzen den edozein ideia aipatzea inguruan barreak entzuteko. Erotuta omen gaude.

Errazagoa zaigu existitu ez zen erreinu demokratiko bat ideal politiko bezala irudikatzea, 1917an amestu eta lortu zuten langile eta nekazari emantzipatuen errepublika demokratiko bat ulertu eta berriro lortzen saiatzea baino. Errusiako Iraultzaren aurretik eta ondoren Marteko gizarte komunisteri buruz idatzi zuten. Orain Martera iristea ere ezinezkoa omen zaigun honetan, bertara iristen den gizakia gaitasun eta irudimen handiko heroia da, Robinson Crusoen antza du, eta etxera bueltatzea du helburu, normalitate hegemoniko bakarera. Gero eta urrunago dago Marte Gorria.

Garai batean irlak ziren Utopia, itsasoaren bestalde hori, non dena zen posible, eta aukeren zabaltze horrek bizitza eta etorkizun hobe baten aukera ematen zigun. Irla utopikoak, ilargiaz haragoko planeta bihurtu ziren XIX. eta XX. mendeetan zientzia fikzioari esker. Orain berriz sareko irlak dira, bizi dugun errealtate itsusitik ateratzeko gaitasuna ematen digutenak. Sareko bidaia interplanetarioak, eta irla/planeta hauetako komunitateak, izango dira agian etorkizuneko utopiak. Bai, fikzio sozialak behar ditugu.

Thomas Morek Utopia argitaratu zuen Martin Lutherrek Laurogeita hamabost Tesiak plazaratu baino urtebete lehenago. Ondoren etorri ziren nekazarien matxinadak, anabaptisten erlijio iraultza emantzipatzaileak, eta nola ez kontra-erreforma. Nikolas Makiavelok idatzi zuen Printzea, eta Cromwell gailendu zen Ingalaterrako iraultzaren eromenean, nibelatzaile eta aitzurtzaileak sortu ziren giroan. Argien mendearen ondoren, herritarrentzat porrot egindako iraultzen ondoren, proletalgora jaiotzen ari zela eta Parisko Komunak berriro porrot egin ondoren, Louise Michelek aurrerabidean sinisten jarraitu zuen. Horretarako heldulekuetako bat izan zen XIX. mendeko zientzia fikzio progresista, eta Julio Vernekin izandako harremana edo H.G. Wells eta Edward



Bellamy irakurtzeko aukera. Bogdanovek 1908an idatzi zuen Izar Gorria zientzia fikzio liburua, zeinean gizarte komunista bat deskribatzen duen Marten, lurrean alderdiko arazoak nagusi diren garaian. Garai horretakoa da Leninekin izan zuen polemika teoriko garrantzua. Aurrerago etorri ziren Proletkult (instituzio artistiko sobietarra, iraultzarekin batera sortua), eta biohacker esperimentu baten ondorioz, heriotza. Garai hura izan zen seguruenik utopia soziala eta errealtate iraultzailea hurbilen egon diren momentua. SESBen eta herrialde komunistetan zientzia fikzioak garrantzia izan zuen, baita bide ezberdina hartu zuten herrialde kapitalistetan. Kapitalismoak berak, eta horren ondorio izan zen faxismoaren goraldiak, gizartearen aurrerapenaren muga eta desbideraketak erakutsi zituen, distopiaren loraldiari bide emanez. Utopia errealean garaian distopiak garaile.

1989an garaitu zuen utopia liberalak, gaur egun bizi dugun gutxi batzuen utopia liberalak, gehien-goarentzako distopia kapitalista. Momentu horretan aldarrikatu zuten historiaren amaiera, baina historiak demostratu duenez oso bizirik dagoela, esan dezagun momentu horretan gertatu zela etorkizunaren amaiera. Etorkizunik ez, punki irredentoez zioten bezala kalean eta cyberpunk mugit-

mentuak sarean. Biziko genituen distopiak mugara eramanez eta horiek ez gertatzeko alarma piztu nahi izan zuten. Horren erakusgarri dira, 1990ean publikatuko Irlen sarea eta Diamantearen Aroa; bata, zein besteak komunitate autoeratuaren garrantzia eta nazio estatuen krisia, korporazioen gailentzearekin batera erakusten dizkigute, era ezberdinetan bada ere. Mezu argi bat ere utzi ziguten "Etorkizuna hemen dago, baina ez dago ongi banatuta".

Kapitalismoaren garaipen handienetakoa izan da, etorkizun utopikoak, edo okerrago, hegemonikoa den ideologia neoliberaletik ateratzen den edozein etorkizun irudikatze gaitasuna kentzea. Eta etorkizun ezberdinak irudikatu eta pentsatzeko gaitasunarekin batera, gaur egungo marko ideologiko hegemonikotik ateratzeko aukera ere kendu digute. Izugarriko arazoa daukagu, izan ere, gaur egun ez daukagu estrategia emantzipatzaileak eraikitze aukerarik.

XXI. mendean gaude, planeta berrietara bidaiak eguneroko kontu bihurtuak behar zuten garaia, denok lan gutxiago eginez bizitza ona izango genuen mendea... Baina non daude gaurko ziren errealtate horiek? Garai ilunak bizi ditugu. Errealtate politiko eta sozialak ez digu etorkizun emantzipatzaileak erakusten, ezin dugu marko neoliberalak hautsi, oraingoz. Argi pixka bat baldin bada zientzia fikzio eta fikzio sozial utopikoan aurkitu dezakegu. Esaterako, China Mieville marxista bizarroaren errealtatearen hausturekin, posiblearen zurruntasunean mundu urrun, paralelo edo fantastikotara iristeko aurkitutako arrakalekin; edota Ursula K. Leguinen gizarte emantzipatu, feminista eta ekologisten irudikatzearekin, beti ere kontraesanez beteak, baina arazoaren aurrean, komunitate izaera indartsuen bitartez, aurrera eginez.

Zer egin baina garai ilunotan? Bizi dugun fase kontserbadorea errealtatea dela ulertuz, estrategia nostalgiaren bidetik eraikitzeo tentazioari eutsi, eta modu sortzailean posiblearen markoak hautsi eta ikuspegia zabaldu behar dugu. Eten-gabe bide bakar bezala erakusten diguten etorkizun distopikoari aurre egin behar diogu. Ezin dugu automatizazioak soberakin sozial bihurtuko dituen kontsumitzaile ejerziturik sortzen utzi, zeinean oinarrizko errenta ere kapitalaren tresna bihurtuko den, eta zaintzaren krisiaren ondorioz, komunitateak hausten ikusiko ditugun. Horren aurrean, lan emantzipatua eta denontzako oporotasuna erdigunean izango dituen etorkizunak sortu behar ditugu. Nola? Lehenik irudikatu eta

fikzio moduan bada ere ahalik eta gehien sortu eta zabalduz.

Iraultza berriak eta eraldaketa sakonak egiteko, beharrezkoa izango da irla eta planeta berrietara bidaiak amestea, toki horietan bizitza eta etorkizun emantzipatuak amestea. Horretarako fikzio utopikoa eta zientzia fikzioa landu beharko ditugu, baita gurean ere. Morek, bere Utopia idaztean, kontinentetik banandu behar izan zen irla bat irudikatu zuen. Irla sortzeko, aitzurra hartu eta milaka pertsonen lanarekin lubakia ireki eta Utopia sortu zuten. Gaur, guri berdina dagokigu; urgentea da.

1917
2017



10 abiapuntu-hipotesia Errusiako Iraultzaren mendeurrenean

01

Sozialismoa da, orain ere, kapitalismoaren erokeria neoliberala eta bere fruitu diren faxismo berrien aurreko **alternatiba zerumuga bakarra**. Beste zibilizazio bat behar dugu eta zibilizazio horren funtsa denona da, komuna. Sozialismoa da **planetaren bideragarritasuna** bermatzen ahal duen proposamen bakarra.

02

Eraldaketa behetik gora egin behar da, **jarduera integralen bidez**. Goitik behera eredu autoritario, burokratiko eta zentralizatuak besterik ez dira birrekoizten. Bada garaia, beraz, **abangoardismo guziak alde batera** uzteko. Eta eraldaketa eredu berriaren gakoa **demoaniztasunaren artikulazioa da**. Borroka eta eragile eraldatzaileen **elkarlana** da eraldaketaren oinarria, esparru guziak hartu behar direlarik. **Estatua borroka eta eraldaketa esparrua da**. Estatuaren lehia egin eta irabazi behar dugu sozialismoa eraikitzeko. Estatua ez da, jakina, borroka esparru bakarra, baina estatuaren inguruko lehiari ihes egitea eraldaketa aukerak mugatzea da, ezinbestean. Finean, **estatu herri mugimendu bilakatzea** da erronka. **Borroka integralak** behar ditugu, makro eta mikropolitikaren artikulatzen dituztenak, ardatz **horizontal** (parte hartzea) eta **bertikala** (ordezkapena) txertatuz.

03

Gaur egungo iraultza eraldaketa sozialista da. Ez da biharko utzi behar gaur egin daitekeen aldaketa. Neguko Jauregiaren Harrerari begira jardutea kaltegarria izan da ezkerrendako. Iraultza era ezberdinetan egin daiteke, altxamendu orokorrak baztertu gabe, baina ezin da erreferente hori mitifikatu: 1917ko iraultzari egiten ahal diogun omenaldirik onena gure garaiko iraultzak egitea da. Behin betirako **gainditu behar dira determinismo eta esentzialismo guziak**. Konplexutasuna aintzat hartuta, idatzita ez dagoen historia idatzi behar dugu, eraldaketaren motorra borroka erreala delarik, ez aurretik aukeratutako klase, alderdi edo herririk. Eraldaketaren subjektua herria da, eraldaketa egiten duen jende multzoa.

04

Gure garaiko sozialismoa behar dugu, XXI. mendeko erronkei aurre egiten diena, gure tradizio askatzailearen oinarriak birziklatuz eta birsortuz. XXI. kapitalismoa gainditu nahi duen XXI mendeko sozialismoa behar dugu. Bukatu da duela ehun urte ireki zen aroa eta beste batean bizi gara. Ezkerrak erabat **berritu behar** du bere **egitasmoa**, itxikeria, sektarismoa eta dogmatismoa alde batera utziz, eta honek **esperienziaren inguruko autokritika zorrotza** eskatzen du. Sozialismoak ez du porrot egin, baina porrot erraldoiak eraiki dira sozialismoaren izenean.

05

Sozialismoak kapitalismoa gainditzeko urratsak proposatu eta gauzatu behar ditu. Gure alternatiba ezin da ekonomiaren estatalizazioa eta planifikazioa izan, baina are gutiago kapitalismo basatiaren jarraipena. Nabarmena da formula berriak jarri behar direla mahaiaren gainean: eredu eta esperientzia aniztasuna, kooperatibismoa, ekonomia komunitarioa... Ekonomia errotik aldatzeko ezinbestekoa da estatua, baina zerumuga ezin da zentralizazioa izan, ezta mitifikatutako planifikazioa ere. Denona denon artean kudeatzeko formularen aniztasuna gorpuztu behar da, beste ereduak eraikiz.

08

Berdintasuna eta denonen (komunen) defentsa dira zerumugaren mugarriak. Sozialismo komunitarioa eraiki behar dugu... Gurean, batzarra, auzolan eta komunalen gaurkotzea da formula berrien inspirazio nagusietako bat. Sozialismo estatisten ereduak gaindituz, behetik gorako joerak lehenetsi behar ditugu, jendartearen demokratizazioa maila guzietara zabalduz.

Bizi garen egoerak urrats bat ematea eskatzen digu XXI. mendeko sozialistoi eta, orohar, **Ofentsiba eraldatzaileera pasa behar dugu maila guzietan**. Aurre egin behar diegu neoliberalismoa eta alternatiba faltsua den faxismo berriari maila guzietan, ekonomian, ideologian, egunoroko bizitzan... Mobilizazio eta borroka fase berriak irekitzeko tenorea da 1917ko iraultzaren mendeurrena.

06

Feminismoa garaiko sozialismoaren zutabe nagusia dugu. Feminismoaren ekarpenak gureganatu, berdintasunaren zerumuga indar oroz bultzatu eta emakumeen borrokaren zentraltasuna bermatzea ezinbesteko urratsak dira.

07

Gure garaiko eraldaketaren erronka nagusia demokrazia da, herriak botere guziak izatea. Liberalismoak eta neoliberalismoak demokrazia gorrotatzen dute, ez dute inoiz maite izan. Herriaren presioak bultzatu du demokratizazioa, gertatu delarik, zuzenan, lorpen gisa, ala iraultzaren beldurrez. Ikurra kendu behar diegu, beraz, zera argi utziz **iraultzaren zerumuga demokratizazio integral eta errotikoa da**.

09

Akats erraldoia litzateke **zaletasun eta pasioen esparrua** kapitala edota faxista berrien eskuetan uztea. Nazioa, herria, elkartasuna, errebeldia, pasio politikoak estrategia eraldatzailearen motorra bilakatu behar ditugu. Garrantzia berezia eman behar zaio maila honetan nortasun eta naziotasunaren auziari. **Internazionalismo berria** eraiki behar dugu, zeinean herrien eskubideak aldarrikatzen baitira, kosmopolitismo neoliberal eta itxura aurrekoa hartu nahi duen kosmopaleitismoa gaindituz. Herrien sozialismoa izanen da munduko sozialismoaren aurrekaria. Behetik gora egin behar da gure garaiko iraultza, herrietatik. **Beste globalizazio bat** bultzatu behar dugu, aske izan nahi duten herriena.

10

Transform! Sarea: Pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa politikorako europar sarea.

Iratzar Fundazioa

2001ean, Porto Alegreko Munduko Foro Sozialaren testuinguruan, Europako sei herrialdetako ezkerreko instituzio eta egunkarietako intelektual talde batek Transform! sarea sortu zuen. Kapitalismoaren hegemoniaren aurrean Europa sozial eta demokratiko bat sortzea

eta bizi duina bermatuko lukeen alternatiba bat gauzatzeko bideak zabaltzeko eta baliabideak eskaintzeko helburu zituelarik. Gaur egun, 23 herrialdetako 32 erakundek osatzen duen sarearen lan nagusia agenda emanzipatzaileari buruzko ikerkuntza eta trebakuntza

politikoa koordinatzea da. Bi urtean behin berritzen da zortzi pertsonak osatzen duten Transform! bulegoa eta egoitza zentrala Vienan dago. Europako ezkerreko alderdiekin (GUE/NLG) lotura zuzena duen lan marko honek ikerkuntza eta formazio lanak koordinatzeaz gain,



munduko zein Europako ezker demokratikoarentzat gai garrantzitsuak diren diskurtsoak sortzen ditu, baliabideak eta materialak argitaratzen ditu eta ezkerreko eta honen instituzio zientifiko eta formatiboen arteko elkarrizketaren aldeko lan interkontinentala bultzatzen du.

Era berean, Sozialismoaren eraikuntza prozesu bat dela kontuan hartuz, etengabe jardun behar dugu baldintza material eta ideologikoak lantzen. Iratzar Fundazioa aurtengo irailetik sare honetako begiralea da, ezker abertzalearen proiektu soberanista aurkeztu, partekatu eta Europako beste errealtateekin uztartzeko bide egokiena baita sare hau.

2017/18 ikasturteari begira Transform! sareak lau lan ildotan jarri du arreta: Europar integrazioa; ezkerreko estrategia, eta migrazioa eta seguritate globala; eraldaketa produktiboa, komunak, gazte eta belaunaldi berriak, memoria... Lan ildo hauek ikusgai izango dira Transform! sarea osatzen duten Fundazio eta Institutu ezberdinek antolatzen dituzten ekitaldi ezberdinetan. Aurten hainbat konferentzia nabarmendu ditzakegu: feminismoa eta marxismoari buruz Lund-ko konferentzia, Londoneko Goldsmith Unibertsitatean ezkerreari buruzko konferentzia, Atenasen Poulantzas Institutuak Angela Davisekin antolatzen duen urteko konferentzia edota Budapesteko udako unibertsitateak antolatutakoa.

Esteka: www.transform-network.net

EN Delaware FR ~~à~~ ES CZ/SK

Sobre nosotros | Red | Blog | Atención | Calendario | Publicaciones | Hoja informativa

NUEVOS LANZAMIENTOS

Pensando en Europa como un campo común

Como dijo una vez el dramaturgo alemán Bertolt Brecht: "El pensamiento es algo que se sigue de las dificultades y precede a la acción". La Unión Europea tiene dificultades. También lo es la izquierda.

Europa en un orden global cambiante: la militarización y la nueva estrategia global de la UE para la seguridad y la defensa

Una visión de los procesos de toma de decisiones y las preferencias de los...

LAS NOTICIAS MÁS IMPORTANTES

Convocatoria de contribuciones

Perspectivas de una estrategia progresiva del Danubio y de Europa Central

21 de diciembre 17

¡A finales de octubre de 2018, transform! europa está organizando una conferencia sobre la disputa crítica sobre el libro de Otto Bauer 'La revolución austriaca'. [Lee mas...]

'Independence March' - La impía Alianza de la derecha polaca

Por Gavin Rae | 28 de noviembre 17

La marcha anual de la Independencia (Marsz

NOTICIAS FUENTES DE LA RED

Fundación alternativa Remunicipalització de l'Aigua


David Companyon i Costa, ex diputat al Parlament de Catalunya y membre de la Fundació en escriu unes panules en relació a la necessitat de remunicipalització de ... [Más]

Diario "Sozialismus" Rechtes Überholmanöver: eine »bürgerlich konservative Wende en Deutschland«

Der bayrischen CSU passen die aktuellen politischen Kräfteverhältnisse nicht. Bei den Bundestagswahlen haben sowohl CDU / CSU wie auch die Sozialdemokratie eine ... [Más]

TORTURA

EUSKAL HERRIAN 1960-2014



Guardia Civil [2348]

Policía Española [2677]

Brigada Político Social [143]

Ertzaintza [407]

Police Française [53]
Beste batzuk [42]

ITURRIA: Informe de Investigación sobre la Tortura en Euskal Herria. Euskal Memoria Fundazioa, 2017.



ONDORIOAK

%42,30 **Aske** [2393]
 %57,36 **Espetxera** [3245]
 %0,09 **Nil** [5]
 %0,25 **Beste batzuk** [14]

5657 KASU

4755 GIZON
902 EMAKUME



Lumière sur une partie de la vérité

ERRIA

Les dossiers élaborés par la fondation Euskal Memoria Fundazioa et par Eusko Jaurlaritza sur la torture, en recueillant des témoignages et en les démontrant de manière scientifique, ont apporté un peu de lumière sur une vérité qu'on a voulu taire et faire disparaître.

Les deux dossiers recueillent une partie de la dure réalité vécue entre 1960 et 2014 par ceux qui ont été torturés, bien que les hauteurs

de l'un comme de l'autre aient avoué qu'il s'agit d'« un travail inachevé », car ils savent qu'il existe beaucoup plus de cas que ceux qu'ils ont traité.

Dans cette voie pour connaître toute la vérité, les dossiers recueillent l'origine des personnes torturées, le type de torture pratiquée, quel corps de police a fait subir les tortures ainsi que les conséquences de la torture. Dans la représentation graphique suivante apparais-

sent les données les plus significatives du dossier publié par Euskal Memoria Fundazioa en 2017.

De plus, le dossier élaboré par IVAC (Institut basque de criminologie), à la demande du secrétariat de la Paix et du Vivre-ensemble du gouvernement basque, a une valeur particulière. En effet, une institution publique a ainsi reconnu l'existence de la torture. Maintenant il faudra faire de nouveaux pas dans la reconnaissance institutionnelle et la réparation. Pour cela il est indispensable d'abandonner l'attitude misérable qui, jusqu'à, a nié son existence et que chacun assume ses responsabilités, pas dasn un esprit de vengeance, mais parce que c'est l'unique manière de garantir que cela ne se reproduise pas. En même temps, il serait important que le Gouvernement de Nafarroa réalise à son tour un dossier de ce type, afin de connaître toute la vérité.

GOMENDIOAK:



Gernikaren egiak.

Oroimen biziko herria.

IPES

Ilusioz eta esperantzaz beteriko abentura batetik gatoz, denboran irauten duena: IPE-Sek Bilbon abiatu zuen bere bidea 1977.urtean, Zabalburu ondoan, soziologia eta ekonomiari buruzko ikastaro jendetsu batzuetan.

Hortik aurrera, betiere Euskal Herriko testuinguruan, ibilbide oparo bati ekin zion askotariko gaiak landuta.

Heziketa aldaketarako giltza dela sinetsita, guztion formazioa -ez elite pribilegiatu batena- izan dugu helburu. IPES-en lana jakintza hedatzea, eztabaidatzea eta eguneroko bizitzan uztartzea izan da, beti ere errealtatea aldatzeko asmoz eta gaur egun ere bada. Ildo beretik ari gara une honetan... 40 urte pasa eta gero.

Gure ekinbidearen xedea, hortaz, herri mugimenduko eragileek daukaten formazio garatzea da; alegia, alderdi politikoaren, masa erakundearen, talde sindikalen, aukide taldeen, hirietako eragilearen edota norbanakoen eraldaketarako lana eragingarriagoa bilakatzea.

Euskal Herriko oroimen historikoan ekarpen-lerroa landu izan dugu urte guzti hauetan. Eta egungo jendartea konplexutasunez beterik badago ere, IPES-ek bere horretan du gure herriaren oroimena berreskuratzea eta balioan jartzeko nahia: "Euskal Herria euskal emakume eta gizonen bizirauteko prozesu historikoaren emaitza baita; norberarena eta guztiena; aldi berean" filosofiari estuki loturik.



GERNIKA ETA MEMORIA

Bistan da Euskal Herriko errealtatea ulertzeko eragin historiko nabaria izan zutela guda zibilaren gertaerak. Orain 80 urte emaniko gertakizunek gaurko testuinguruan presentzia nabaria dute, oraindik orain. Hortaz, begirada ezberdinetatik arreta puntua izatea egun, beharrezkotzat joenez.

Zentzu horretan, guztionatik ezaguna da Gernikak guda zibilean - baita aurretik eta ondoren ere- izan duen esanahia, eta merezi du azpimarra berezia: historikoki, kulturalki, sinbolikoki, sozialki, politikoki ... karga esanguratsuez beterik dago Gernika.

1937ko apirilaren 26an bonbardatua izan zen Gernika, eta ondorioak latzak izan ziren: erabat suntsitua izan zen herria [%80-a bai, behizat]: Herri baten suntsiketaren espainiar estatu berriaren ekintza fundazionala bihurtu zen. Eguna, lekua eta ekintza. Betirako iltzatu-

rik geratu zaigun marka. Gaurdaino.

Oroimena ez da atzoko eztabaida soilik, beraz. Gaurkoa eta bihurtu ere bada. Hausnarketa kolektiboak, zentzu horretan, beharrezkoak dira; eta zorionez, orokorrean, gurean, egitean ari direla esan dezakegu.

Errelatoaren eztabaida ezbaian dagoen honetan, izaera ezberdinetako eragileoi dagokigu euskarriak eskaini, espazio kolektiboak sustatu eta ezagutzarako baliabideak mahai-gaineratzea; eta, ildo horretan, IPES-ek, bere xumetasunean, ekarpena egin nahi du.

"Gernikaren Egiak" deituriko proiektu honek norbanako, eragile, instituzio eta herritarrentzat, orohar, tresna bat izatea nahi du. Egindakoa eta izandakoa abiapuntu [kasu honetan 1987-ko historialarien mahai-ingurua eta Gernika bonbardatu zutela 80 urte bete diren honetan] baina, batez ere, gaurko ikuspegitik oroimenaz kolektiboki gogoetatu eta eztabaida sozialari arreta emateko. Liburuxka formatoan aurrena, eta, ikus-entzunezko eran ondoren, auzetzu eta eskaini dugu:

Ikusentzunezkoa IPES-en vimeo kanalean ikusgai dago: <https://vimeo.com/ipes>.

Tresna izan nahi du, erraminta; hiru gairi azpimarra eginez: emakumearen ahotsa, historia eta ikuskera; komunikabideek gerra testuinguruetan jokatzen duten papera, Gernikaren adibidea kasu; eta oroimen historikoaren lanketan herri mugimenduek izan duten eta egun duten protagonismo aktiboari arreta.

Efemerideak harago, oroimenaren lanketa eguneroko bizitzan txertatu behar dugula ondorioztatu dugu, eta gure errealtatea interpretatzen jakiteko ezinbesteko lanabesa ere badela. Modu bateratuan, edo eragile gisa, norabide horretan lan egiten jarraituko dugu, herri-memoria irabazteko dugulako.

La Izquierda Abertzale acertó.

Jon Jimenez. Txalapartako editorea.



Egilea: Raul Zelik.
Txalaparta, 2017.

Raul Zelik es un "viejo conocido" de la editorial Txalaparta, una de esas personas que se consideran de casa, aunque vivan a cientos de kilómetros en Alemania o en Colombia. Para quien no lo conozca diremos que Zelik es un politólogo, escritor y, por encima de todo, militante político generoso donde los haya. Ha sido galardonado en numerosas ocasiones (con *Situaciones berlinesas* estuvo nominado al Premio Nacional alemán en 2005) y nos ha regalado infinidad de crónicas político-literarias, además de traducir, junto con Petra Elser, Lagun izoztua (Joseba Sarrionandia) del euskera al alemán.

Pocas veces tenemos la oportunidad de leer lo que piensa un intelectual europeo de nosotros y

nosotras, de esa comunidad que es la izquierda abertzale. La mayoría de veces, además, tenemos que leer una lista interminable de tópicos, cuando no mentiras, que se han centrado históricamente, además, en el aspecto militar de la lucha. Por eso, cuando las reflexiones que nos llegan son, profundas, de largo alcance, centradas en los aspectos más sociales y antropológicos del movimiento abertzale y cuando conciben a este propio movimiento como algo más que un grupo que practica la lucha armada, es un lujo poder leerlas y una obligación publicarlas.

La izquierda abertzale acertó se divide en cinco capítulos que hacen un análisis de cinco grandes temas: la hegemonía-contrahegemonía, el comunitarismo, las formas de lucha, la composición social y las alternativas económicas. En todos ellos nos martilleará el autor alemán con alguna verdad incómoda. En todos ellos se repetirá un mismo y simple esquema: cómo está el concepto a nivel global y cómo ha aplicado y entendido ese concepto la izquierda abertzale a lo largo de su historia. ¿Cómo se entiende la hegemonía en la izquierda global y cómo hemos aplicado la idea en nuestro país? ¿Qué alternativas sociolaborales se plantean a nivel teórico en el mundo y cuáles se han aplicado, con mayor o menor éxito, en Euskal Herria? Por otro lado, como el propio Zelik afirma, este ensayo está escrito desde tres posiciones diferentes, que hacen que su visión se aún más enriquecedora si cabe. Está escrito desde fuera,

desde la izquierda abertzale y desde la teoría política. Y es desde esta tensión desde nos hace replantearnos muchas de las cuestiones que no nos cuestionamos y otras a las que no damos apenas importancia y que pueden ser el capital que tenemos para "exportar" a la izquierda en el mundo.

Teniendo en cuenta todo ello, no cabe duda de que Raul Zelik ha querido que La izquierda abertzale acertó sirva como herramienta para cualquier militante independentista de izquierdas. Así lo entendemos también desde Txalaparta y con esa intención lo publicamos: para que sirva como herramienta que ponga encima de la mesa temas de discusión controvertidos. Temas que van a la raíz, a donde crecen las emociones, para insuflarnos algo de orgullo y optimismo y en esta época de crisis existencial. Porque la mayoría de las veces tienen que venir de fuera para decirnos, contra nosotros y nosotras mismas, que sí, que acertaron, que acertamos.



Hegemonia, artikulazioa eta populismoa. Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria.

Iratzar Fundazioa. Inspirazioak Saila.

Ernesto Laclau [Buenos Aires, 1935/10/6- Sevilla, 2014/04/13]

Egileak: Floren Aoiz Monreal, An-doni Olariaga Azkarate, Jon Azkune Torres, Unai Apaolaza Amenabar, Mario Zubiaga Garate eta Mikel Urdangarin Irastorza

Laclarena askapenaren teoria eta praxia berritzeko saioen artean kokatu behar da. Eta bere saioak bizi garen garaiaren ulermenerako eta eraldaketa pentsatu eta garatzeko tresna kontzeptual eta irakurketa eta proposamen inspiratzaileak eskaintzen dizkigu, bere teoria osoaz ados egon ala ez baliatzen ahal ditugunak. Asko dira guretako inspiragarriak izan daitezkeen ideia, kontzeptualizazio eta proposamenak, besteak beste honako hauek: klase esentzialismo eta determinismo ekonomikoaren kritika; artikulazio hegemonikoaren garrantzia; nortasun politikoen eraikuntzaren eta sedimentazioaren irakurketa; psikoa-nalisiaren ekarpenak (era berezian afektuen eragina); hizkuntzaren eragina; kontingentziaren nagusitasuna, antagonismoaren aldarrikapena, politika eraldaketa gisa hartuta; etika militantea, iraultza demokratikoa eta demokraziaren erradikalizazioaren zerumuga; unibertsala eta partikularraren arteko harremana eta, azkenik, populismoaren teorizazioa, instituzionalismoaz kontrajarria.

ZERGATIK LACLAU?

Nunca estuve alejado de la actividad política. Siempre mi pensa-



miento se estructuró alrededor de la acción política. [...] Siempre fui un militante.

Ernesto Laclau, 2013

Ernesto Laclaren ekarpenen inguruko kaier honek hasiera ematen dio Inspirazioak izeneko Iratzar Fundazioaren argitalpen bilduma berriari. Nonbait hasi behar zen eta Laclau izan da lehen gonbidatua gure kaierretan, jada García Linera bolibarraren antologia liburu batean parte hartu dugularik Txalaparta Argitaletxearekin.

Laclau aukeratzeko lehen arrazoia bere heriotzaren bigarren urteurrena zen, baina egitasmoaren gauzapena atzeratzen joan da eta data garrantzia galdu du, askotan gertatzen denez. Inspirazio emankortasuna izan da, berri, irizpide nagusia: Laclau aukeratu dugu hagitz inspiragarria iruditzen zaigulako.

Oso emankorra da Laclaren pentsamendua politika eta eraldaketa pentsatzeko (eta gauzatzeko) politika administrazio hutsa bilakatu nahi duten gure garaietan. Berrikuntzak ekarri ditu Laclauk, batzuk zuzenak, beste batzuk eragin dituen eztabaiden bidez. Eta iruditzen zaigu aberastasun handia dagoela hor, guregana ekarri beharko genukeena.

Honetan ez dago inolako Laclauismo aldarrikapenik, norbait edota bere ekarpenak inspiragarritzat hartzeak ez baitu esan nahi jarraitu beharreko eredu bilakatzen dugunik. Beste inspirazio batzuk ekarriko ditugu eztabaidara hurrengo aleetan, horietako batzuk Laclaren hainbat ideiekiko kontrajarriak izan daitezkeelarik. Gure ustetan, hau da eztabaida aberasteko bidea, atxekimen dogmatikoak, mekanizismoak, sinplekeriak eta itxikeriak alde batera utzita.

Laclau pentsalari garrantzitsua da, Euskal Herrian nahiko berandu ezagutu bada ere. Alde batetik, Laclau agertzen da azken garaietako ezkerren hainbat eztabaidaren lehen mailan, Butler, Zizek, Negri, Holloway eta erreferente askorekiko harreman-elkarlan eta diskusioak izan dituelarik.

Nabarmena da, bestalde, hainbat prozesu politikotan izan duen eragina, bereziki -baina ez soilik- Argentinan. Batzuen aitzin, beharbada, Kitchnerismo edo Podemosen oinarri teorikoren iturburu gisa agertu da Laclau. Modan sartu izanak distorsioak ekartzen ditu normalki, eta halaxe gertatzen da gure gizonaren kasuan. Izan ere, Laclau ezagutzea edo aipatzea (batzuetan, ezagutu edo irakurri gabe) prestigioa ematen ahal du hainbat esparrutan. Populismoaren satanizazioan behin eta berriro aipatua eta idazteko estilo kriptiko xamarra darabilela aintzat hartuta, erreferentzia snob-progre bilakatzeko aukera handiak ditu Laclauk.

Honek ezin gaitu atzera bultza,

alta. Beste batzuek pentsalari honekin egiten dutenez gain, guk ederki dakigu zer egin nahi dugun Laclaukin: inspirazio emankorrak arakatzeko asmoa dugu, beste hainbat egile eta eraldaketa esperientziaz egin nahi dugun moduan. Modan egon ala ez.

Jakin badakigu Laclaren ikusgarritasun mediatikoak eta bere teoriaren jabetze saioek pentsalariaren harrera baldintza dezaketela, baina hortik haratago joan nahi izan dugu, guk ere badugulako zer ikasi, baita irakaspenak non uztartu ere, borroka eta eraikuntza ibilbide luze eta emankorra baita gurea. Egindako bideak halako inspirazioak jori bilakatzen ahal ditu, eta gure ardua ekarpen interesgarriak aintzat hartzea da, aberasten gaituztelako. Xede horri erreparatu, hainbat gogoeta-idazki eta euskarara itzultitako Laclau beraren testu bat bildu ditugu kaier honetan. Zenbait hausnarketa

Hegemonia, artikulazioa eta populismoa. Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria. sakondu eta hedatzeko urratsa dugu ahalegin hau, bereziki hegemonia eta artikulazioaren inguruan, nortasun politikoen sorrera eta garapena, herriaren eraikuntza, esentzialismoen kritika, diskurtsoa, politika (eta era berezian pasio politikoa) ulertzeko psikoanalisiak eskaintzen ahal duen ikuspegia ahortzi gabe.

Iruditzen zaigu gogoeta nahiz ideia inspiratzaileak eta, finean, emankorrak bildu ditugula testu hauetan. Gure ustetan, lagungarriak izan daitezke ezker abertzalearen gaur egungo eztabaidan eta berrindartze estrategikoan, baina, edonola ere, gure ikuspegi nagusia zabalagoa da. Batetik, unea uneko beharretatik haratago ere baliogarriak direlako, eta, bestetik, herri gisa garatu behar ditugun hausnarketa eta praxia eraikitzaile-askatzailean bultzatzeko erregaia ere bilakatzen ahal direlako.

1977 Amnistia urtea - 40 urte geroago.

Iratzar Fundazioa

Egileak: Kai Saez de Egilaz, Iñaki Egaña, Floren Aoiz eta Antton Lopez

Gertatutakoaren oroimena askatzailea delako...

Iratzar Fundazioak, aurreko urteetako dinamikari jarraituz, aurrera doan 2017.urte honetan ere KORAPILOA egitasmoa elikatzen ari gara webgunean.

Izan ere, guk gure historia kontatzea beharrezkoa dela uste dugu, beste batzuek trantsizioaren edota espainiar erreforma politikoen inguruan inposatu nahi diguten errelato bakarraren aurrean Euskal Herriaren memoria historikoa bultzatuz.

Errelatoaren eta borroka ideologikoaren auziak haritu nahian, 1977. urtea izan dugu ardatz aurten, data hartatik 40.urteurrena betetzen den honetan. Urte garrantzitsua izan zen Euskal Herriarentzat eta ezker abertzalearentzat. Erreforma politikoa ezarri nahi izan zuten garaia bereziki bizia izan zen politikoki, antolakuntzari eta mobilizazioei dagokionez; baina zalantzarik gabe 1977.urte amnistiaren urtea izan zen.

Eta egiteko honetan, argitalpen berri bat abiatu dugu: 1977 Amnistia urtea- 40 urte geroago iraganari buruzko analisi eta ikerketa LIBURUA. Irakurlea garaiko testuingurura eramango duen lana da, garaiko errepaio historiko baten bitartez: presoak eta kartzelak, amnistiaren aldeko asteak, Txiberta, atzerirratzeak, Askatasunaren aldeko martxak, Monkloako itunak, Euskal Askapen Nazio Mugimendua ber definizioa [ETA, KAS, Altsasuko mahaia, Alternatiba] ... Garai bizi horretan bizi eta erakutsien

ikerketa-hausnarketa lan kritiko hau ez da iraganari begirada hutsa, orainean eta geroan eragiteko asmoa duen iraganaren irakurketa eraikitzaile eta eraldatzailea da. Etorkizunaren jabe egiteko asmoan uztar dezagun, denok batera, geure iraganaren interpretazio kritikoa.



Baie de Pasaia, chronique d'une chasse à l'homme

Productions Oinatzak



Après avoir été interpellée illégalement et torturée par la police nationale, Rosa Jimeno fut contrainte de fixer un rendez-vous avec les membres des Commandos Autonomes Anticapitalistes réfugiés en Pays Basque Nord. Jimeno fut attachée par les jambes avec une corde sur les rochers de la baie de Pasaia, la nuit du 22 mars 1984. Au signal indiqué, le zodiac en provenance du nord s'approcha. Commença alors une rafale de tirs impressionnante.

Comme l'explique Joseba Merino, Pedro Mari Isart et Jose Mari Izura furent dans la première rafale. Joseba Merino fut alors arrêté avec Rafael Delas et Dionisio Aizpuru. Delas et Aizpuru furent abattus sur place. Le médecin légiste Pako Etxeberria dénombra 113 impacts de balles sur les corps. La version officielle dit qu'il y eut un affrontement.

L'histoire proche d'Euskal Herria est pleine d'événements rudes et tristes. Des histoires de ce pays ayant dépassé celles de thrillers les

plus sombres, dont l'une est celle de la baie de Pasaia.

Les témoins directs des proches décédés, Rosa Jimeno et Joseba Merino, les avocats, les habitant-e-s de Pasai Donibane, le médecin légiste Paco Etxeberria, l'ancien président Carlos Garaikoetxea, l'ancien journaliste du quotidien El País Fernando Orgambides et Enrique Villareal « El Drogas » ont pris part, entre autres, à ce documentaire. En prenant comme sujet principal les événements de Pasaia, le documentaire rassemble de nombreux documents, des images d'archives d'événements, des témoignages crus et des conversations émouvantes.

Malgré le fait que les personnes interrogées représentent un large éventail d'idées, toutes parlent clairement des faits : les événements de Pasaia étaient des meurtres préparés. Pako Etxeberria n'a jamais vu « autant de balles » sur des cadavres ; il affirme que « la police a tiré jusqu'à finir toutes ces munitions »

et que l'objectif de l'opération était sans aucun doute « de tuer ceux qui arrivaient en zodiac ». Carlos Garaikoetxea a également utilisé des termes semblables, en ajoutant que c'était l'un des événements les plus difficiles de cette époque, lorsqu'il parle des années 80. Fernando Orgambides, l'ancien journaliste de El País, compare le piège mortel de Pasaia à une partie de chasse au cerf ou au sanglier.

Les tribunaux, malgré la demande de la défense, n'ont pas fait de nouvelle autopsie ni même de preuves balistiques. Les auteurs du documentaire ont dû faire eux-mêmes le test balistique de manière approximative. Les conclusions sont claires : dans la version officielle, la police a menti en déclarant qu'elle avait tiré à plus de cinq mètres, avec des munitions de chasse.

Quoi qu'il en soit, les récits de ceux et celles qui ont vécu l'événement restent les interviews les plus émouvantes, notamment celles des parents et de Rosa Jimeno. Après avoir été soumise à des tortures de toutes sortes, la police utilisa Jimeno comme appât. Le témoignage de ces dures tortures et le sentiment de culpabilité qu'elle porte depuis sont particulièrement éprouvants et touchants pour le spectateur.

Les attentats du GAL, le sadisme des policiers quand ils se moquent des familles qui ont perdu leur frère, la torture, l'impunité policière ou l'impunité causée par le manque de justice pour les proches... « La baie de Pasaia » est une histoire remplie de blessures ouvertes. Les familles continuent de réclamer justice, 34 ans plus tard. En juin 2016, l'affaire a finalement été classée, le tribunal constitutionnel rejetant l'appel, et la défense a dorénavant pris la route du tribunal de Strasbourg. Les chapitres de l'histoire doivent être fermés, mais après les avoir lus. C'est la responsabilité de tous et de toutes de lire et de diffuser ces pages de notre histoire.

BURUJABE I: Itsasoa zabala eta zatarraren zentzua. Hara jo genuen busti ezinezko ametsen txalupekin. Ilustrazioa: Oier Zuñiga.



